



TOLOSAKO
UDALA

APARTEKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA

2020.04.17

Tolosako Udaletxean, 2020ko apirilaren hamazazpian, 14:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Aparteko eta Premiazko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin
Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Bilkuraren premiatasuna onartzea.
2. Onartzea Covid-19ak sortutako kalteberatasun ekonomikoan dauden pertsonak parke publiko babestuen alokairua ordaintzetik salbuestea.
3. Ondorengo dekretuen berri ematea eta, hala badagokio, berrestea:
2020/546
2020/554
2020/567
2020/577
2020/586



TOLOSAKO
UDALA

COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Alkate-lehendakariak era telematikoan egingo den batzarrari hasiera eman dio 11/2020 Errege Lege Dekretuak, bere Bigarren Azken Xedapenean, 7/85 Legearen 46. artikulua aldatu eta erantsitako 3. atalean oinarrituz: «3. *En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.*

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.».

Beraz, aipaturiko xedapenean araututakoaren arabera, Udal Idazkariak honako eginbideak egin ditu:

Lehenik.- Batzarkide guztien identitatea egiaztatu du.

Bigarrena.- Batzarkide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena egin du, Estatuko lurraldean dagoela ziurtatzeko.

Hirugarrena.- Irizpideen bozketa banan-banan egingo da, eta batzarkide bakoitzak bere botoa azalduko du.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari ekin diote.

1. BILKURAREN PREMIATASUNA ONARTZEA.

Alkateak, bileraren premiatasuna justifikatzeko arrazoiak azaldu ditu. Izan ere, gaurko bilkuran onartu nahi diren neurrien helburua da bizi garen krisi sanitarioa pairatzea, eta kalteberatasun egoeran dauden sektoreei laguntzea. Neurria atzeratuz gero, bere eragina galduko luke.

Aparteko bilkura honen premiazko izaera bozkatu egin da, eta Erakunde Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 79. artikulua agintzen duena kontuan izanik, aho batez berretsi dute birbaieztatze proposamena bilkuran izan diren batzarkideek.



2. ONARTZEA COVID-19AK SORTUTAKO KALTEBERATASUN EKONOMIKOAN DAUDEN PERTSONAK PARKE PUBLIKO BABESTUEN ALOKAIRUA ORDAINTZETIK SALBUESTEA ONARTZEA.

Parte-hartzeak:

Xabier Balerdi Tolosa Jk. Batzorde Informatiboak onartutako irizpena aurkeztu du, eta adierazi du proposamen hau oinarritzen dela Eusko Jaurlaritzak 2020ko martxoaren 31n onartutako Aginduan. Bertan, alokairuko parke publikoko etxebizitzaren maizterrei errentak ordaintzetik salbuestea ebatzi da, hiru hilabeteko epeaz, beti ere COVID-19 pandemiaren ondorioz kalteberatasun egoera egiaztatzen badute.

Etxebizitza azpisailak proposatu du neurri berdinak aplikatzea, eta xede horrekin Oinarri batzuk prestatu ditu. Bertan proposatzen da COVID-19ren ondoren kalteberatasun ekonomikoan dauden maizterrei apirila, maiatza eta ekaineko errentak ordaintzetik salbuestea, beti ere baldintzak betetzen badituzte eta proposaturiko prozedura jarraituz.

Aitana Amondarain A.k aipatu du Antolakuntak Batzorde Informatiboan bere taldeak proposatu zuela neurri hauen eragina zabaltzea, eta errentak ordaintzetik salbuestea egoera zaurgarri horietan bizi diren maizterrei, urtariletik aurrera. Neurri hauek beste oinarri juridikoa behar dute, baino etorkizunean kontuan hartzea eskatzen dute.

Xabier Balerdi J.k erantzun du laguntza hauek berezko lotura dutela COVID-19rekin, eta beste egoerei erantzuteko jadanik neurri batzuk daudela (RGI, larrialdiko laguntzak..).

Segidan, batzarkideek irizpen hau aztertu eta bozkatu dute:

Antolakuntza Batzordearen 2020ko apirilaren 15eko irizpena.

Aurrekariak

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuen SARS-CoV-2 birusak eragindako gaitzaren (aurrerantzean COVID 19a) epidemia, eta ordura arteko egoera kategoriatik horretara igotzea. Horren ondorioz, alarma-egoeraren eta osasun-larrialdiaren adierazpen bana egin ziren, eta, haien segidan, zenbait neurri hartu dira, bai estatu-mailakoak, bai gure autonomia-erkidegoaren barrukoak, birusaren hedadura mugatzeko helburua dutenak.

Neurri horiek hainbat esparruri eragin diete, baina guztien artean, osasun arloak izan du lehenetsua eta gainontzeko eremuetan hartutako neurriak baldintzatu ditu.

Tolosako Udaleko Alkatetzak, martxoaren 17an ebatzitako 546/2020 Dekretuan jaso zituen hainbat neurri, hasierako egoerari aurre egiteko. Halaber, Jarraipen Batzorde bat eratu zen, non lanean diharduten udal taldeetako ordezkariak, langileen ordezkariak, Zuzendaritza Taldeko kideak, komunikazioko arduradunak, eta Obra eta Zerbitzuetako eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak. Talde hori egunero biltzen da, osasun krisiaren



TOLOSAKO
UDALA

jarraipena egiteko, eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko, bai Udalaren barruan, bai udalerrian. Horrekin batera, egoeraren larritasunak etengabeko jarraipena eskatzen du, hartutako neurriak berraztertu eta neurri berriak ezartzeko, Udalaren jardute eremuetan.

2020ko martxoaren 26an, 567/2020 Dekretuaren bitartez, Tolosako Udaleko Alkatzak hainbat neurri hartu zituen, Jarraipen Batzordean aztertu ondoren, ondorengo helburuekin:

1. Pandemiaren hedapena mugatzen laguntzea, Udalaren egoitzetarako joan-etorriak behar-beharrezkoa den gutxienekora mugatuz.
2. Udalaren zerbitzuko langileen esposizioa minimizatzen saiatzea, bereziki arrisku egoeran dauden enplegatuena.
3. Herritarrei bermatzea udal eskumeneko funtsezko zerbitzuak.
4. Gainontzeko zerbitzuen prestazioari buruzko irizpideak argitzea.
5. Egoeraren larritasunak eskatzen dituen neurriak etengabe berrikustea eta egokitzea, eta Udaleko sail guztien artean koordinazioa bermatzea.

Ondoren, Alkatzak 577 eta 586 Dekretuak onartu zituen; aurrenekoa, funtsezko zerbitzuak betetzen ez zituzten langileen baimen ordaindu berreskuragarria arautzeko, 10/2020 Errege Lege Dekretuak xedatutakoaren arabera, eta bigarrena, udal zergen arloan hainbat neurri hartzeko, 1/2020 Foru Arau Dekretuak xedaturikoa islatuta.

Horretaz gain, hainbat neurri hartu dira arlo sozialean, biztanleria-sektore ahulenen identifikazioa eta detekzioa hobetzeko eta Udalaren arreta eraginkorrago izateko. COVID-19aren hedapen azkarra aurrekaririk gabeko osasun-alerta izateaz gain, gizarte mailako alerta piztu ere egin du. Une honetan, herritar asko horren ondorioak jasaten ari dira, eta ezinbestekoa da neurriak hartzea sektore horiei zuzenduta. Izan ere, osasun-krisi hau eragin zuzena izaten ari da ekonomian eta gizartean, ekoizpen-kateetan eta herritarren egunerokoan.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak, 2020ko martxoaren 31n, Agindu bat onartu zuen, zeinaren bidez arautzen baitira alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko hainbat neurri. Agindu honen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, helburua da alokairu babestuko parke publikoan egoera ekonomiko kalteberan dauden errentariak alokairua eta komunitate-gastuak ordaintzetik ezohiko izaerarekin eta aldi baterako salbuestea.

Salbuespen horren onuradun izan ahalko dira EAEko etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza baten errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa, baldin eta «kalteberatasun ekonomikoko» egoeran badaude. Halaber, zuzkidura-bizitokien emakidaren onuradunek ere baliatu ahal izango dute salbuespen hori.



TOLOSAKO
UDALA

Salbuespena apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei aplikatu ahaiko zaie, kalteberatasun egoerak bere horretan jarraitzen badu.

Agindu honen 1. Xedapen Gehigarriak aukera ematen die beste eragile publiko zein pribatuei —beti ere Euskadiko Autonomia Erkidego eremuan kokatutakoei— salbuesteko neurri hauek aplikatu ditzaten. Beraz, Tolosako Udalak eskumena du bere alokairu- eta zuzkidurako etxebizitzetan martxoaren 31n xedaturiko neurriek indarrean jartzeko.

Era honetan, Tolosako Udaleko Etxebizitza Zerbitzuak proposamen bat egin du, eta helburua da aldi baterako salbuestea alokairua eta komunitate gastuak ordaintzetik udal honek kudeatzen dituen alokairu publikoko etxebizitza parkean bizi diren eta osasun-emergentziak eragindako krisialdi honetan ekonomia-kalteberatasun egoeran egon daitezkeen maizterrak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak onartutako Aginduak xedaturiko terminoetan.

Gaiaren azterketa

I. Etxebizitza Zerbitzuko teknikariak arrazoi hauetan oinarritu du bere proposamena:

Neurri hauek eskatzen dute ebazpen bat ematea, zer kasutan aplikatzen den identifikatzeko eta hura aplikatzeko bideak zehazteko.

Ezaugarriak: Salbuespenaren ezaugarriei dagokienez, onuradun izan ahalko dira Tolosako Udalaren etxebizitza-parke publikoetako etxebizitza baten errentamendu-kontratu baten titular diren pertsona guztiak, norberaren izenean edo errentakide gisa, baldin eta kalteberatasun ekonomikoko egoeran badaude. Egoera berean dauden zuzkidura-bizitokiaren erabilera eskubidearen onuradunek ere baliatu ahal izango dute salbuespen hori.

Araudi hau babes ofizialeko etxebizitzek, zuzkidura-bizitokiak eta antzeko etxebizitzek osatzen duten etxebizitza-parkeari aplikatuko zaio, baldin eta Tolosako Udalak alokairuko etxebizitzak eskatzaileen erregistrotik datozen eskatzaileekin sustatutako esleipen-prozesu batean parte hartu badute errentariak, alegia, Agaramunduko 7ko babes ofizialeko etxebizitzak, Euskal Herria plazako 1Bko zuzkidura bizitokiak, Kondeaneko aldapako 11Ako babes ofizialeko etxebizitzak eta 2015 urteko "Etxebizitza Hutsak" programatik Udalak merkaturatu dituen etxebizitzak, Udalaren alokairu-zerrenden bitartez esleitu diren 5 etxebizitza.

Ordainketaren salbueste epea: Eskaerak egiteko epea erabakia jakinarazten den egunetik hasi eta maiatzaren 31 arte izango da, biak barne. Eskaera egin eta aldeko ebazpena eman ondoren, salbuespena hilabete osoz aplikatuko da, eta kalteberatasun egoera ziurtatzen den bitartean, apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei eragin ahal izango die.



Kalteberatasun ekonomikoa ezaugarritzat duen egoera:

Erabaki honen ondorioetarako, besteren konturako langileak **kalteberatasun ekonomikoa ezaugarritzat duen egoeran egongo dira** osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz errentarien edo erabiltzailerren bat langabezian geratu bada, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean edo beste enplegu-espediente batzuetan jasotako kontratu-eteteak direnean, ezinbesteko kausengatik edo bi kasuetan COVID-19 gaitzarekin lotutako arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoengatik.

Langile autonomoen edo enpresaburuen kasuan, kalteberatasun ekonomikotzat jotzen da diru-sarreraren galera edo salmenten % 40ko beherakada edo handiagoa jasaten duen egoera.

Bi kasuetan, kalteberatasun ekonomikoa ezaugarritzat duen egoera gertatzen dela jotzeko, gainera, eskatzen da ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa gehi komunitate gastuak handiagoak izatea pertsonaren edo bizikidetzaren unitate errentariaren urteko diru-sarrerara haztatuen % 30 baino, babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko araudiaren arabera kalkulatuta.

Betekizunak.

1.- Salbuespenaz baliatu ahal izateko, errentamendu-kontratuek edo zuzkidura-bizitokien erabilera kontratuek indarrean egon behar dute, eta 2020ko martxoaren 14a baino lehen formalizatuta egon behar dute, egun horretan indarrean jarri baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita COVID-19 gaitzak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera.

2.- *Besteren konturako langileen kasuan*, langabezia-egoera data horren ondoren hasi behar da, eta behar bezala egiaztatu behar da osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz hasi dela.

Ondorio horietarako, hala egin dela ulertuko da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean edo beste enplegu-espediente batzuetan jasotako kontratu-eteteak direnean, ezinbesteko kausengatik edo bi kasuetan COVID-19arekin lotutako arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoengatik.

Era berean, epea amaitzeagatik kontratuak azkentzen direnean eta aldi baterako kontratuak berritzen ez direnean, langabezia-egoera osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorio dela ulertuko da, baldin eta eskatzaileek beren jarduera gauzatzen badute martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda daukaten jardueren zerrendan sartutako sektoreen batean.

Aurreko kasuak aplikagarriak ez direnean, egiaztatu ahal izango da zuzeneko lotura dagoela langabezia-egoeraren eta osasun-larrialdiak eragindako krisiaren artean, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.



3.- *Langile autonomoen edo enpresaburuen kasuan*, diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada kalkulatzeko, 2020ko apirilera eta maiatzeko diru-sarrerak edo salmentak hartuko dira erreferentziatuz, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturalean egindako batez bestekoarekin alderatuta.

Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda daukaten jardueren zerrendan jasotako sektoreen batean lan egiten duten pertsonen kasuan, kalteberatasun ekonomikoaren egoera aurrez halakotzat jotzen da, eta ez da egiaztatu beharko diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada hori.

Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2020ko maiatzaren 31ra arte, edo, hala badagokio, alarma-egoera amaitu eta hilabetera arte, data hori 2020ko maiatzaren 31 baino geroagokoa bada.

2.-Alokairuaren ordainketaren salbuespena maizterrak eskatu beharko du. Eskabideak telematikoki aurkeztu ahal izango dira www.tolosa.eus webgunean, eta erabaki honekin batera onartuko den inprimakia erabili behar da. Hala ere, eskaera telematiko bat egiteko beharrezko baliabiderik ez badago, eta kontuan hartuta aurrez aurreko arreta-zerbitzua aldi baterako eten egin dela, eskaera gauzatu ahal izango da mezua etxebizitzak@tolosa.eus helbidera bidalita.

3.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak: eskabidea aurkeztuko da kalteberatasun-egoera (langabezia, jarduera utzi behar izana eta abar) egiaztatzen duten dokumentuekin batera:

- 1- Prestazioak kudeatzen dituen erakundeak emandako ziurtagiriak egiaztatuko du langabezia-egoera. Bertan agertuko da langabeziaren ondoriozko prestazioen edo sorospenen kontzeptupean jasotako hileko zenbatekoa.
- 2- Langile autonomoek jarduera utzi behar izanaren kasuan, ezinbestekoa izango da foru-ogasun eskudunak edo, hala badagokio, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak emandako ziurtagiria aurkeztea.
- 3- Maizterren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da (horrekin ziurtatuko du behar besteko baliabiderik ez duen pertsonatzat hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela)

Errenta eta alokairuen ohiko kobrantzaren atzerapena: neurri hauek modu eraginkor batean aplikatu ahal izateko eta, oinarri hauen arabera ordainketatik salbuesteko eskaerak tramitatu ahal izateko, Tolosako etxebizitza publikoaren parkeko alokairuen kobrantza atzeratu egingo da, eta hilaren 15etik 20ra bitartean kobratuko da.



TOLOSAKO
UDALA

Horrenbestez, indarrean dagoen hilabeteari dagokionez, oinarri hauek aplikatuta kobratzetik salbuesten ez diren alokairu guztiak apirilaren 15etik 20ra bitartean kobratuko dira, eta horrela, hurrenez hurren, maiatzean eta ekainean.

II. Udaleko idazkariak eta kontuhartzaileak bere adostasuna azaldu dute egindako proposamenarekin, eta espedientean daude haiek egindako txostenak.

III. Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Nerea Letamendia, Kristina Pelaez, Garbiñe Marzol. Aitana Amondarain eta Jose M^a Villanueva

Beraz, Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako hau onartzea:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- Eusko Jaurlaritzak etxebizitza arloan hartutako neurriekin bat egitea eta, ondorioz, aldi baterako salbuestea alokairua eta komunitate gastuak ordaintzetik Tolosako Udalak kudeatzen dituen alokairu publikoko etxebizitza parkean bizi diren eta osasun-emergentziak eragindako krisialdi honetan ekonomia-kalteberatasun egoeran egon daitezkeen maizterrak, oinarri hauen arabera:

Lehena.- *Neurri hauek babes ofizialeko etxebizitzek, zuzkidura-bizitokiak eta antzeko etxebizitzek osatzen duten etxebizitza-parkeari aplikatuko zaizkio, baldin eta Tolosako Udalak alokairuko etxebizitzen eskatzaileen erregistrotik datozen eskatzaileekin sustatutako esleipen-prozesu batean parte hartu badute errentariak, alegia, Agaramunduko 7ko babes ofizialeko etxebizitzak, Euskal Herria plazako 1Bko zuzkidura bizitokiak, Kondeaneko aldapako 11Ako babes ofizialeko etxebizitzak, eta 2015. urteko "Etxebizitza Hutsak" programatik Udalak merkaturatu dituen etxebizitzak, Udalaren alokairu-zerrenden bitartez esleitu diren 5 etxebizitza.*

Bigarrena.- *Neurri horiek aplikagarriak izango zaizkie Tolosako Udalak kudeatzen dituen alokairu publikoko etxebizitza parkean bizi diren maizterrei, osasun-emergentziak eragindako krisialdiaren ondorioz langabezian edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean daudenei, eta langile autonomoak edo enpresaburuak izanik, diru-sarreraren galera edo salmenten beharakada nabarmena —% 40koa edo handiagoa— jasaten dutenei.*

*Ondorio horietarako, **alokairu-errentaren eta erkidego-gastuen eta familia-unitateko kide guztiak jasotzen dituzten urteko diru-sarrera haztatuen alde % 30etik gorakoa izan beharko du.***



Hirugarrena.-Alokairua edo errenta salbuesteko eskaera erabakia jakinarazten den egunetik hasi eta maiatzaren 31 arte aurkeztu ahal izango da. Eskaera egin eta aldeko ebazpena eman ondoren, salbuespena hilabete osoz aplikatuko da, eta kalteberatasun egoera ziurtatzen den bitartean, apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei eragin ahal izango die.

Laugarrena.- Alokairuaren ordainketaren salbuespena maizterrak eskatu beharko du. Eskabideak telematikoki aurkeztu ahal izango dira www.tolosa.eus webgunean, eta erabaki honekin batera onartuko den inprimakia erabili behar da. Hala ere, eskaera telematiko bat egiteko beharrezko baliabiderik ez badago, eta kontuan hartuta aurrez aurreko arreta-zerbitzua aldi baterako eten egin dela, eskaera gauzatu ahal izango da mezua etxebizitzak@tolosa.eus helbidera bidalita.

Horretarako, eskabidea aurkeztuko du kalteberatasun-egoera (langabezia, jarduera utzi behar izana eta abar) egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Prestazioak kudeatzen dituen erakundeak emandako ziurtagiriak egiaztatuko du langabezia-egoera. Bertan agertuko da langabeziaren ondoriozko prestazioen edo sorospenen kontzeptupean jasotako hileko zenbatekoa.

Langile autonomoek jarduera utzi behar izanaren kasuan, ezinbestekoa izango da foru-ogasun eskudunak edo, hala badagokio, Zerga Administrazioari Estatu Agentziak emandako ziurtagiria aurkeztea.

Maizterren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da (horrekin ziurtatuko du behar besteko baliabiderik ez duen pertsonatzat hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela).

Eskatzaileak aurkeztu behar duen dokumentazioari dagokionez, 2019ko abenduan eta 2020ko urtarrilean, otsailean eta martxoan familia unitatea osatzen duten kide guztien sarrerak azaldu behar ditu.

Dokumentazioa aurkeztu ezean, eskatzaileak aurkeztu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpen bat, eta baimena emango dio Tolosako Udalari administrazio honek azaldutakoa egiazta dezan, eskumena du(t)en administrazio(ar)en aurrean dagokion informazio-eskaera izapidetuta.

Besteren konturako langileek informazio hau azaldu beharko dute eskaeran: enpresaren izena, jarduera ekonomikoaren sektorea eta langabezia egoeraren hasiera data.

Langile autonomoek zer jarduera ekonomikotan ari diren adierazi beharko dute eskaeran.

Hilero, errenta-salbuespenen onuradunek egiaztatu beharko diote Tolosako Udalari kalteberatasun egoerak jarraitzen duela. Horretarako, erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko dute, Udalak onartutako ereduari jarraituta.



TOLOSAKO
UDALA

Onuradunek baimena emango diote Tolosako Udalari egiazta dezan Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen dituztela. Horretarako, baimena emango diote Udalari beharrezkoa den informazioa eskura dezan, eskumena duen administrazioari eskatuta.

Bosgarrena.- Tolosako Udalaren Etxebizitza Zerbitzuari dagokio salbuesteko eskabideak kudeatzea eta eskabideak jasotzea, eta, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, ebazpen-proposamena egingo du.

Seigarrena.- Ebazpena 15 eguneko epean jakinarazi beharko da, eskaera egiten den egunetik hasita, eta administrazio isiltasuna baieslea izango da.

Zazpigarrena.- Errenta eta alokairuen ohiko kobrantzaren atzerapena: neurri horiek modu eraginkor batean aplikatu ahal izateko eta oinarri hauen arabera ordainketatik salbuesteko eskaerak tramitatu ahal izateko, Tolosako etxebizitza publikoaren parkeko alokairuen kobrantza atzeratu egingo da, eta hilaren 15etik 20ra bitartean kobratuko da.

Horrenbestez, indarrean dagoen hilabeteari dagokionez, oinarri hauek aplikatuta kobratzetik salbuesten ez diren alokairu guztiak apirilaren 15etik 20ra bitartean kobratuko dira, eta horrela, hurrenez hurren, maiatzean eta ekainean.

Zortzigarrena.- Oinarri hauetan araututako neurriak bateraezinak dira etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, etxebizitzako prestazio osagarriarekin eta beste edozein administrazio publikok edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako eman ditzakeenekin. Ondorio horietarako, eskatzaileak adierazi beharko du ez duela egin agindu honetan araututako laguntzen pareko eskaerarik.

Bederatzigarrena.- Oinarri hauetan berariaz arautu ez den guztirako, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak 2020ko martxoaren 31ko Aginduan xedaturikoa izango da aplikagarria. Halaber, eta bidegabeki jasotako laguntzak iraungitzeko eta itzultzeko prozeduraren ondorioetarako, dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den araudi orokorra aplikatuko da, hain zuzen, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

BIGARRENA.- Beharrezkoak diren izapideak gauzatzea, Tolosako Udalaren aurrekontutik gehienez 21.474,41 euroko gastua baimentzeko.

HIRUGARRENA.- Oinarri hauek ondorioak sortzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek eta oinarri arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** COVID-19ak sortutako kalteberatasun ekonomikoa dauden pertsonak parke publiko babestuen alokairua ordaintzetik salbuesteko oinarriak

3. ONDORENGO DEKRETUEN BERRI EMATEA ETA, HALA BADAGOKIO, BERRESTEA:

2020/546
2020/554
2020/567
2020/577
2020/586

Alkatetza dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

2020ko martxoaren 17ko 2020/546 dekretua.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/546

XABIER BALERDI TOLOSAk, Tolosako Udaleko A ntolakuntzako zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita, 2019/1208 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta, eta kontuan izanda Ministroen Kontseiluak alarma egoera deklaratu onartutako 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19 gaitzak sortutako osasun larrialdia aurre egiteko hainbat neurri hartzen dituena.

AURREKARIAK

Koronabirus berriak eragindako salbuespeneko egoera kontuan hartuta, eta haren hedapena geldiaraztera bideratuta, 2020ko martxoaren 16an Ministroen Kontseiluak alarma egoera deklaratu du 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuak 2020ko martxoaren 13an emandako Aginduetan, osasun publikoko prebentzio neurriak agindu ditu, eta Segurtasun Sailak, 2020ko martxoaren 14an emandako Aginduan formalki aktibatu du Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, Covid-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta. Neurri horiek hartu dira 6/2020 Dekretuaren baitan, zeinaren bidez lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzen baititu COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean. Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek



EBAZTEN DITU:

I. LANGILE PUBLIKOEKIKO NEURRIAK

1. NEURRI OROKORRAK

Lehena.- Langile publiko guztiok bete eta betearazi behar ditugu Alarma Egoeran ezartzen diren neurriak, 463/2020 Errege Dekretuan zehaztutakoak, baita Eusko Jaurlaritzatik emandako jarraibideak ere.

Bigarrena. Alkatetzak aipatutako egoeren ondorioz hartu beharreko neurriak betetzen direla bermatzeko dagozkion neurriak har ditzake (langileen mugikortasun funtzionala, lansaioen murrizketa...), beti ere aipaturiko neurriak eta jarraibideak bermatzeko xede bakarrarekin.

Hirugarrena. Langile guztiek bete behar dituzte Osasun Ministerioak eta Osasun Sailak adierazitako higiene neurriak, horien artean:

- Eskuak maiz garbituko dituzte urarekin eta xaboiarekin.
- Arnas arazoak izanez gero, ahoa eta sudurra estali behar dira ez tul egitean edo doministiku egitean, erabilera bakarreko musuzapi batekin, eta zaborrontzi batera bota; halakorik ezean, ukondoarekin estali behar dira arnasbideak.
- Ustekabeko eztula sortzen bazaizu eta, nahigabe, eskuarekin estaltzen baduzu, ez ukitu begiak, sudurra edo ahoa, eta garbitu eskuak berehala.
- Langileren batek aipatutakoen antzeko sintomaren bat badu, eta arrisku eremu batera joana baldin bada edo balizko kasuren batekin harremanik izan badu, etxean gelditu behar du eta 900 20 30 50 telefonora deitu, Osasun Sailak aurreikusitako diagnostiko eta tratamendu protokoloari jarrai diezaion.
- Udalak, bere aldetik, beharrezkoak diren baliabideak hornituko ditu, neurri hauek bete daitezzen.

Laugarrena. Ahal den neurrian, langileei eskatzen zaie beren lan eremutik irten gabe geratzeko, eta langileen kontzentrazioa saihesteko. Arrazoi horiengatik Udaletxeko office-a itxi egingo da eta ezingo da erabili.

Bosgarrena. 463/2020 Errege Dekretuak, lan-arloko euste-neurrien ingurukoak, 8. artikuluan honako hau dio: "Enplegatzaileek, publikoek zein pribatuek, enplegatuen langile edo funtzionarioen prestazioa ahalbidetzeko neurriak eman beharko dituzte, aurrez aurrekoak ez diren bitartekoen bidez, ahal den guztietan",

Horren haritik, hainbat neurri hartuko dira Tolosako Udalean:

1) Langile-zerbitzuek ordutegi-kontrola malgutuko dute, hau da, ez da eskatuko lanaldiak osorik betetzea, eta, oraingoz, ez-betetzeak ez du ekarriko deskonturik norberaren gauzetarako eta errekuperatutako baimenetan. Dena den, onartu berri den araudian ezarritako gutxieneko ordutegia bete beharko da, hau da, 08:30etik 14:00etara, dekretu honetako hirugarren eta laugarren ataletan aurreikusitako kasuetan izan ezik. Era berean, arratsaldean lan egiteko aukera ere izango du langileak, dekretu honetako bosgarren puntuan xedatutakoaren arabera.

2) 2020rako lanaldiei eta ordutegiei buruzko Araudian aurreikusitako berreskuratze denbora hiru hilabetetik sei hilabetera luzatuko da.

3) Beren ardurapean adingabeak dituzten langileentzat (14 urte edo gutxiago dituztenak hartuko dira halakotzat) edo mendekotasuna duten adinekoentzat (dagokion foru organoak emandako



mendekotasun- ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira), baldin eta ikastetxeak edo adinekoak ixteak eragiten badie, ezinbestekoa bada, langileak bi aukera izango ditu:

- a) Baimen berezi bat emango zaie alarma egoera bitartean behar beste lanordu etxean egoteko zaintza lanetan. Lanordu horiek alarma egoera bukatu eta hurrengo 12 hilabetetan errekuperatu ahal izango dituzte, zerbitzu beharren arabera eta zerbitzuburuarekin adostuta.
- b) Posible den kasuetan, eta batez ere aurrez aurrekoak ez diren lan modalitateetan, Tolosako Udalak ahalik eta lasterren telelanaz lan egiteko baliabideak jarriko dizkie. Kasu horretan ez du zertan lanordu horiek errekuperatu.
- c) Langile hauek arratsaldeko txandan lan egiteko aukera izango dute, 14:00etatik 19:30era izanik gutxieneko ordutegia.
- d) Bateko ala besteko eskaerak personala@tolosa.eus helbidera zuzendu beharko dira.

4) Aurreko puntuan sartzen ez diren langileen kasuetan ere aurrez-aurrekoak ez diren lan modalitateak onartu ahal izango dira, Alkatetzaren edo/eta dagokion Lurralde/Herritarak/Antolaketa zinegotzi koordinatzailearen alde aurreko baimenarekin, teknikari koordinatzaileari entzun ondoren, zerbitzu publikoen prestazioa bermatzeko helburuarekin. Beti ere, lehentasuna izango dute 3) puntuan sartzen diren langileak. Kasu horietan ere eskaerak personala@tolosa.eus helbidera zuzendu beharko dira.

5) Aurreko puntuan egindako aurreikuspena zabalduko zaie, beren ezaugarri pertsonalen edo egoera biologiko ezagunaren arabera, aurretiazko patologiak, medikazioa, nahasmendu immunitarioak edo haurdunaldia direla-eta, koronabirus berriarekiko esposizioarekiko arriskuarekiko bereziki sentikorrek diren langileei. Egoera horiek medikuaren agiriarekin justifikatuko dira.

Seigarrena. Dekretu honetan aurreikusitako ondoriotz zerbitzuak berrantolatu behar badira, esparru bakoitzeko zinegotzi arduradunak eta langileen arloko organo arduradun bakoitzak erabakiko dute nola egin behar den bere antolamendu-esparruaren barruan. Dekretu honetan aurreikusitako egoerak mugatuak izan daitezke, baldin eta zerbitzuko funtsezko jarduerari eragiten dieten salbuespenezko egoerak gertatzen badira.

Zazpigarrena Prebentzio Mahaia eta Osasun Batzordea izan ezik, Tolosako Udaleko eta haren menpeko erakundeetako kide anitzeko organoetako deialdi eta bilkura guztiak bertan behera geratzen dira; kontratazio-mahaiak, kalifikazio-epaimahaiak, negoziatio mahaiak, administrazio-kontseiluak, patronatuak, ezkontza zibilak eta korporazioko kideen eta enplegatu publikoen gainerako bilerak, edota pertsonak biltzen dituen beste edozein ekitaldi publiko. Osoko bilkurak, informazio-batzordeak eta gobemu batzarren kasuan, egoera aztertu eta horren arabera erabakiko da zer egin.

Zortzigarrena. Aurreko puntuaren ka/tetan gabe, ezinbestez eta behar bezala justifikatuta legokeen premiazko egoera batean bilkuraren bat egin beharko balitz, jarraibideak ematen dira:

1. Ahal bada bideokonferentzia edo bideo-deia erabiltzea. *informatika* Sailak pixkana hori ahalbideratzeko neurriak hartuko ditu.
2. Bilerak edo batzorde presentziala egin behar izanez gero, behar besteko edukiera duen gela bat erabiltzea eta bilerara joan direnak haien artean gutxienez metro bateko tarteak gordetzea.
3. Bilerara joan direnek, gelara sartu baino lehen, eskuak garbituko dituzte, ezarritako protokoloaren arabera eta agurra saihestuko dute.
4. Behin bilera bukatu eta gero, bilerara joan direnek mahaia zein besaulkiak garbituko dituzte.

2. ARRETA ZUZENEKO LANGILEEKIKO NEURRI BEREZIAK



Bederatzigarrena. Bosgarren puntuan xedaturiko neurriak ez zaizkie ordutegi bereziak dituzten langileei aplikatuko, ezta jendeari zuzeneko arreta emateko zerbitzuetan ere; haien berezitasunekin bat datozen beste batzuk hartuko dira horietarako.

Herritarrei zuzeneko zerbitzuak ematen dizkieten zerbitzu edo organismoen kasuan (UDATE, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa...), zerbitzuak interes orokorraren beharrezanetara egokituko dira. Era honetara:

- Zerbitzu hauek atekak itxiko dituzte eta soilik funtzionatuko dute aurretiazko zitarekin, arrazoiz justifikatuengatik, eta beste irtenbiderik posible ez denean. Ahal den kasu guztietan zerbitzuak emango dira baliabide telefoniko edota elektronikoak erabiliz. Gainontzeko sailetan ez da aurrez aurreko zerbitzurik emango, ezta aurretiazko zitarekin ere.
- Orokorrean, ondorengo irizpideak jarraituko dira:
 - Sarrera Erregistrotik sartu behar ez diren eskaerak, telefonoz edo emailez jasoko dira nagusiki, eta, premiazkoak izanez gero, bide elektronikotik edota emailez bidaliko dira. Bestelako kasuan, alarma egoera amaitu ondoren igorriko dira.
 - Erregistroko sarrerak egiteko, Erregistro Elektronikoa lehenetsiko da. Salbuespenez, eta alarma egoerak dirauen bitartean, onartuko dira emailez igorritako sarrera dokumentuak.
 - Arreta zuzeneko pertsonalak herritarrek informatuko ditu, alarma egoerak dirauen bitartean sektore publikoko prozedura guztiak etenda daudela argituz
- Arreta zuzeneko kasuetan, beharrezkoak diren segurtasun neurriak mantenduko dira (distantziak, ahal bada tarteko elementu bat jarritz, eskularruak, maskarillak,). Herritarrek, arreta jaso aurretik, garbitu beharko dituzte eskuak.
- UDATE eta gainontzeko arreta zuzeneko langileek erabiliko dituzte baliabide telefonikoak eta telematikoak herritarrei laguntza emateko, ahalik eta informazio zabalena eskainiz.

3. UDALTZAINGOKO KIDEEKIKO NEURRIAK

Hamargarrena. Udaltzaingoa bete beharko ditu 4/1981 Lege Organikoak, ekainaren 1ekoak, Alarma-, salbuespen- eta setio-egoerak arautzen dituenak, segurtasun indarrei ematen dizkien betebeharrak.

Xede honekin, Dekretu honi erantsen zaio 2020ko martxoaren 14ko agindu komunikatua, Barne ministroak emandakoa, Jarduteko irizpideak ezartzen dituen segurtasun-indar eta kidegoentzat, Alarma-egoera deklaratzeko duen Dekretuak Eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko helburua duena, Udaltzaingoa bete dezan bere terminoetan .

Tolosako udalerrian, Udaltzaingoa bereziki zainduko du 463/2020 Errege Dekretuaren 6. artikuluan jasotako neurriak betetzen direla:

" 1. Alarmako Egoera indarrean dagoen bitartean, herritarrek erabilera publikoko bideetatik zirkulatu ahal izango dute soilik honako jarduera hauek egiteko:

- a) Elikagaiak, farmazia-produktuak eta behar-beharrezkoak diren gauzak erosteko.
- b) Osasun-zentroetara joateko.



TOLOSAKO
UDALA

- c) Lantokira joatea lan-, lanbide- edo enpresa-zerbitzuak emateko.
- d) Ohiko ~~bizkura~~ itzultzeko.
- e) Adinekoei, adingabeei, mendekoei, desgaitasuna duten pertsoneri edo bereziki ahulak diren pertsoneri laguntza eta zaintza emateko.
- f) Finantza-erakundeetara joateko.
- g) Ezinbesteko arrazoiengatik edo premia-egoeragatik
- h) Behar bezala ~~justifikatu~~ antzeko beste edozein jarduera.

2. Era berean, ibilgailu partikularrek erabilera publikoko bideetan zirkulatu ahal izango dute, aurreko paragrafoan aipatutako jarduerak egiteko edo gasolindegietan edo gasolina-zerbitzuguneetan erregaia hartzeko."

Hamaikagarrena. Egoeraren berezitasuna kontuan hartuz, Udaltzaingoko langileek erabateko baliagarritasuna eduki behar dute. Beraz, eta Alarma Egoerak dirauen bitartean, baimenak eta oporrak etenda gelditzen dira.

II ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK, ERREGISTROA ETA LANAREN ANTOLAKUNTZA.

Hamabigarrena. Administrazioarekin harremanak elektronikoki behar duten subjektu guztiei (pertsona juridikoak, profesional kolegiatuak, elkarteak ..) errekerituko zaie beren betebeharra bete dezaten. Pertsona partikularen kasuan, bide elektronikoaren edo telefonikoaren bidez komunikatzea eskatzen zaie, eta horretarako lehen arretako langileek aipatutako bide horiek erabiltzen lagunduko diete herritarrei, Dekretu honen zazpigarren ebazpenean xedaturikoari jarraituz.

Hamahirugarrena.

463/2020 Errege Dekretuak Hirugarren xedapen gehigarriak, "Administrazio-epeak etetea"ren gainean hauxe ebatzi du:

- a. Sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak eten egiten dira eta terminoak bertan bera geratzen dira. Epeen zenbaketa berriz hasiko da Errege Dekretu honek, edo hala balegokio, haren luzapenak indarra galtzen duenean.
- b. Terminoak bertan behera geratzea eta epeak etetea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 3912015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatuko zaizkio.
- c. Aurrekoaren kaltetan izan gabe, organo eskudunak erabaki ahal izango du, ebazpen arrazoitu baten bidez, prozeduran interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larriak saihesteko beharrezkoak diren antolamendu- eta instrukzio-neurriak hartzea, betiere interesdunak ados dagoena adierazten badu, edo epea ez etetearekin ados dagoela adierazten badu.

Halaber, Laugarren Xedapen Gehigarriak ondorengo hau xedatzen du:

Edozein akzio eta eskubideren preskripzio- eta iraungitze-epeak etenda geratuko dira alarma-egoera indarrean dagoen bitartean eta, hala badagokio, baita gerta litezkeen luzapenetan ere. Xedapen horiek jasoko dira Tolosako Udalean izapidetzen ari diren espedienteetan, Saileko arduradunaren eginbide gisa. Epearen hasiera martxoaren 15ekoa da. Espedienteak kudeatzeko programa erabiliko da xede honetarako, eta posible izango balitz, modu masibo eta automatizatuan.



Era berean, Udaleko sailen batek jakinarazpenen bat egiten badu, jakinarazpen horietan epeen etenaldia adierazi beharko da, aurreko paragrafoan adierazitako terminoetan.

Hamalugarrena. Tolosako Udalak berehalako neurriak hartuko ditu telelana sustatzeko, eta herritarrekin bere harremanak bide elektronikotik gauzatu ahal izateko ahal den kasu guztietan. Zentzu honetan, Informatikako zerbitzua LEHENTASUNEZKO ZERBITZU deklaritzen da, eta horren ondoren:

1. Zerbitzua betetzen duen pertsonalak erabateko prestasuna izango du.
2. Ezingo du oporrik edo baimenik izan, egoerak dirauen bitartean.
3. Udalak beharrezkoak diren kontratazioak gauzatu ahal izango ditu, emergentziazko bidetik, ebazpen honetan jasotako zerbitzuak (telelana eta herritarrekin arreta eta komunikazioa) bermatzeko.
4. Eremu horretako jarduera guztiak IZFErekin koordinatuta egingo dira.

Hamabosgarrena. Udaleko sail bakoitzak ondorengo zereginak beteko ditu ahalik eta azkarren:

1. Izapidetzen ari diren espedienteak aztertu ondoren, sailkapen bat egingo du, espediente bakoitzaren premiatasunaren arabera.
2. Halaber, egin behar dituen jardueren sailkapena egingo da, irizpide bera erabilia.
3. Ondoren, Lan Esparru bakoitzeko bileran eta Zuzendaritza Taldeko bileran informazioa jaso ondoren, lanen lehentasunari buruzko irizpideak ezarriko dira.

III KONTRATAZIOAK ETA ZERBITZUAK

Hamaseigarrena.

1. Ondoko kontratazio hauetan emergentziazko prozedura erabili ahal izango da: segurtasunerako horniduren erosketetan, arreta zuzeneko pertsonala bereizteko instalazioetan, eta telena eta beharrezkoak diren ekipamendu eta zerbitzu informatikoetan. Halaber, Alkatetzak zabal dezake aitorpen hau beste esparru batzuetara, ebazpen justifikatuaren bidez, egoerak horrela eskatuko balu.

2. Eragindako sailetako arduradunek beharrezkoak diren neurriak proposatuko dituzte kontratu hauetan:

- *Eraikin publikoetako garbiketa zerbitzuan: garbiketa eta desinfekzio bereziak zehaztu eta programatuko dira.*
- *Kale eta eremu publikoetako garbiketa zerbitzuan: hiri altzarrietan eta eremu publikoetan egin beharreko neurri bereziak zehaztu eta programatuko dira.*
- *Hiri garraioko zerbitzuan: bidaiarien garraio-zerbitzuko operadoreek egunero garbitu behar dituzte garraio-ibilgailuak, Osasun Ministerioak ezarritako gomendioen arabera. Halaber, erabiltzaileen artean gehieneko bereizketa ezarriko dute. Kontratu honek izan ditzakeen aldaketak zehaztu eta programatuko dira.*
- *Etxez etxeko zerbitzuan, eta, orokorrean, Gizarte Zerbitzuen arloko zerbitzuetan beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira erabiltzaileen arreta eta langileen segurtasuna bermatzeko.*



TOLOSAKO
UDALA

- *Gainontzeko kontratuetan, sail bakoitzak aztertuko ditu Alarma Egoeraren eraginak, eta hartu beharreko neurriak zehaztu eta programatuko ditu.*

Sail bakoitzeko arduradunak koordinatuko du bere ardurapeko teknikarien lana, xede hauetarako:

- *Bere sailaren ardurapeko kontratuetan izan diren aldaketak, zerbitzuak areagotu, gutxitu, edo aldatu direlako.*
- *Aldaketa horiek zehaztu eta baloratzeko.*
- *Aldaketa guztiak dokumentatuko dira beharrezkoak diren txosten eta aurrekontuekin.*

4. Obra kontratuen kasuan, OSALAN erakundearekin kontsultatuko da, eta haren jarraibideak jarraituko dira.

Hamazazpigarrena *Udalaren menpe dauden garraio publikoen jarduna % 50era murriztu daiteke, goian aipatutako Errege Dekretuak agintzen duen moduan.*

Hemezortzigarrena *Adierazitako neurriak martxoaren 16an sartuko dira indarrean, zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute. Nolanahi ere, neurri horiek aldatu edo egokitu egin daitezke, gertaeren bilakaeraren edo zerbitzuaren beharren arabera.*

Hemeretzigarrena. *Dekretu honen berri emango da Udaleko Osoko Bilkurari, egiten duen lehenengo bilkuran.*

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, jarduneko idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, martxoaren hamazazpian.

Zinegotzi delegatua

*Nire aurrean,
jarduneko idazkaria*

2020ko martxoaren 17ko 2020/554 dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA

2020/0554

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.

2019-2023 epealdirako Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatetza honek beharrezkotzat jo zuen izaera orokorreko eta izaera bereziko eskuduntzak hainbat zinegotziren esku uztea, dekretu hauen bidez:

- *2019ko ekainaren 17an egindako 2019/1017-2 Dekretua:*
Obrak eta Zerbitzuak, Mugikortasuna eta Ingurumena: Patxi Amantegi Zubiria zinegotziaren alde.
- *2019ko uztailaren 12an egindako dekretua:*
Kultura (Musika Eskola, Bandak eta Udal Biblioteka barne) eta Festak: Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe zinegotziaren alde.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatu azpisailek izango dituzten premiak kontuan hartuz, ordea, beharrezkoa da alkateak bereganatzea azpisail horietan aipatutako eskuordetzak. Izan ere, aipatu bi zinegotzi delegatuak ez dira izango Udaletxean. Beraz, bien bitartean alkateak bereganatuko ditu.

Aplikagarria den legedia:

- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoan onartzen dena (10 artikulua).

- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Udal korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena (14. artikulua).

Beraz, arrazoi teknikoak kontuan hartuta, Alkatetza honek

EBAZTEN DU

Lehena: Aipatutako zinegotziak etorri arte, zinegotzi delegatu hauen alde egindako eskuordetzak abokatzea.

. - Kultura eta Festen azpisailean Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe zinegotzi delegatuaren alde egindakoak.

- Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumenaren arloan Patxi Amantegi Zubiria zinegotzi delegatuaren alde egindakoak.

Bigarrena.- Ebazpen hau aipatutako zinegotzi delegatuei eta sailen arduradunei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.

Tolosan, 2020ko martxoaren 17an

Alkatea

**Nire aurrean,
jarduneko idazkaria**

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea

2020ko martxoaren 26ko 2020/567 dekretua.

**ALKATETZA DEKRETUA
2020/567**

OLATZ PEON ORMAZABALEK, TOLOSAKO ALKATE UDALBURUAK, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.m) atalean xedatutakoen arabera, honako hauek

IKUSIRIK

I. PANDEMIAREN AITORPENA ETA ALARMA EGOERA.



2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak SARS-COV 2 birusak eragindako gaitza (aurrerantzean COVID 19a) pandemiatzat jo zuen, eta ordura arteko egoera kategoria horretara igo zuen. Horren ondorioz, alarma-egoeraren eta osasun-larrialdiaren adierazpen bana egin dira, eta, horren ondorioz, zenbait neurri hartu dira, bai estatu-mailakoak, bai gure autonomia-erkidegoaren barrukoak, birusaren hedadura mugatzeko helburua dutenak.

II. TOLOSAKO UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK

Tolosako Udaleko zerbitzuen funtzionamendua dela eta, martxoaren 17an ebatzitako 546/2020 Dekretuak jaso zituen hainbat neurri, hasierako egoerari aurre egiteko. Halaber, Prebentzio Mahai bat eratu zen, non lanean diharduten udal taldeetako ordezkariak, langileen ordezkariak, Zuzendaritza Taldeko kideak, komunikazioko arduradunak, eta Obra eta Zerbitzuetako eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak. Talde hau egunero biltzen da, osasun krisiaren jarraipena egiteko, eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko, bai udalaren barruan, bai udalerrian zehar. Horrekin batera, egoeraren larritasunak etengabeko jarraipena eskatzen du, hartutako neurriak berraztertu eta neurri berriak ezartzeko, Udalaren jardute eremuetan.

Egoera honen aurrean, eta Tolosako Udalaren jardunari dagokionez, honako helburu nagusi hauek lortu behar dira:

1. Pandemiaren hedapena mugatzen laguntzea, Udalaren egoitzetarako joan-etorriak behar-beharrezkoa den gutxienez mugatuz.
2. Udalaren zerbitzuko langileen esposizioa minimizatzen saiatzea, bereziki arrisku egoeran dauden enplegatuena.
3. Herritarrei bermatzea udal eskumeneko funtsezko zerbitzuak.
4. Gainontzeko zerbitzuen prestazioari buruzko irizpideak argitzea.
5. Egoeraren larritasunak eskatzen dituen neurriak etengabe berrikustea eta egokitzea, eta Udaleko sail guztien artean koordinazioa bermatzea.

Beraz, garbi adierazi behar da, Dekretu honetan hartzen diren neurriak etengabe berraztertuko direla, eta egokituko direla egoerak eskatzen dituen betebeharrak.

KONTUAN HARTURIK

Udal idazkariak egindako txostena, Dekretu honetan islatzen dena:

I. ALARMA EGOERA: UDAL ADMINISTRAZIOAREN JARDUERARENTZAT XEDAPEN GARRANTZITSUENAK.

Alarma egoerari dagokionez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez (465/2020 Errege Dekretuak aldatuta), Estatuko Gobernuak alarma egoera dekretatu du COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoera kudeatzeko, ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoan, alarma-, agortze- eta setio-egoerei buruzkoan, xedatutakoaren arabera. Errege Dekretu horrek honako hauek ezartzen ditu:

- Udaltzainak, Estatuko Barne Ministerioaren agindu zuzenen pean geratuko dira, pertsonak, ondasunak eta tokiak babesteko beharrezkoa den guztian.
- Babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuek ministerio horren mende jardungo dute funtzionalki.
- Administrazioek beren zerbitzuen ohiko kudeaketarako dituzten eskumenei eutsiko diete, alarma-egoeraren ondorioetarako agintaritza eskudunaren agindu zuzenak betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.
- Pertsonen eta ibilgailu partikularren zirkulazioa salbuespenezko jarduera jakin batzuetara mugatzen da. Salbuespen horietan ez da sartzen izapideak egiteko bulegoetara edo administrazio-bulegoetara joatea.
- Azkenik, Dekretuaren Hirugarren eta Laugarren Xedapen Gehigarriek xedatzen dute epe eta terminoen etendura, sektore publikoko erakunde guztien prozedura orotan, eta preskripzio- eta kaduzitatearen epeen etendura. Epeen zenbaketari berriz ekingo zaio Errege-dekretuak edo, hala badagokio, haren luzapenak xedaturiko neurriak amaitzen direnean. Aurrerago aztertuko dira xedapen hauek.

Diputatuen Kongresuak, 2020ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, luzatzea erabaki du alarma egoera hau, beste 15 egun naturaleko epeaz.

Bestaldetik, 7/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 12koak, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko neurriak hartzen ditu, besteak beste:



- Ikastetxeen itxierak eragindako zaurgarritasun-egoeran dauden haurrak elikatzeko oinarritzko eskubidea bermatzeko neurriak, kreditu gehigarrien bidez finantzatu ahal izango direnak.
- Funtzionario publikoen araubide berezietako langileak COVID-19 gaitzaren ondorioz isolatuta edo kutsatuta egon diren aldiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat jotzea.
- Zerga-zorrak geroratzeko neurriak.
- COVID-19ari aurre egiteko Estatuak egin beharreko kontratazioak errazteko neurriak. Zentzu honetan, Estatuak Administrazio Orokorreko organoek COVID-19ari aurre egiteko edozein neurri zuzen edo zeharkako hartzeak berehala jarduteko beharra justifikatu du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoaren babesean. Kontratazio guzti hauei aplikatuko zaie larrialdiko tramitazioa, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 120. artikuluan xedatutakoaren arabera. Pertsonen osasuna COVID-19 delakoaren aurrean babesteko neurriak hartzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar diren funtsak ondoren justifikatu dira.
- Azkenik, Lehenengo Amaierako Xedapenak arautzen du salbuespenezko egoeretan, eta krisiaren izaerak hala eskatzen duenean, Gobernuak lehendakariak erabaki dezake, arrazoituta, organo kolegiatuen bilkurak egin, erabakiak hartu eta urruneko aktak bitarteko elektronikoen bidez onartzea. Bilerak hauetarako ondorengo baldintzak xedatzen dira:
 - Parte hartzaileak estatuko lurraldean egotea.
 - Parte hartzaileen identitatea egiaztatzea.
 - Bilkurak irauten duen bitartean, parta hartzaileen arteko komunikazioa benetako denboran ematea.
 - Hala beharko balitz, eztabaiden izaera erreserbatua errespetatzea.
 - Audiohitzaldiak eta bideokonferentziak jotzen dira baliozko baliabide elektronikotzat xede hauetarako.

Azkenik, 2020ko martxoaren 18ko Estatuak Aldizkari Ofizialean argitaratu da 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri berezietan buruzkoa. Xedaturiko neurrien artean, honako hauek azpimarratuko dira:

- Egoera ahulean dauden langile, familia eta taldeei laguntzeko neurriak, kreditu gehigarriekin finantzatuta:
 - Etxez etxeko hurbiltasun zerbitzuak indartzea, zaintza, laguntza, ingurunearekiko lotura, segurtasuna eta elikadura bermatzeko, bereziki adinekoei, ezgaitasuna dutenei edo mendekotasun egoeran daudenei zuzendutakoak.
 - Etxez etxeko telelaguntzako gailuen funtzionamendua areagotzea eta indartzea.
 - Beharrezkotzat jotzen denean, etxez etxeko eremura eramatea errehabilitazio zerbitzuak, terapia okupazionala, higiene zerbitzuak eta antzekoak, zentroetako eguneko arreta etetea kontuan hartuta.
 - Etxerik gabeko pertsonen laguntzeko baliabideak indartzea.
 - Gizarte zerbitzuetako zentroetako eta egoiztetako plantilak indartzea, prebentzioagatik, kutsaduragatik edo zerbitzu berriak emateagatik edo plantila gainkargatzeagatik ordezkapenak egin behar direnean.
 - Prebentziorako baliabideez hornitzea.
 - Familiei diru-sarrera nahikoak bermatzeko partiden zuzkidura handitzea, haien oinarritzko beharrak asetzen direla ziurtatzeko, hala larrialdikoak nola gizarteratzekoak.
 - Zerbitzu eta baliabide egokiak ematea, zaintzaileei atsedean emateko eta lana eta familia bateratzeko xedeekin, diru-sarrera txikiak dituzten eta beren lantokira joan edo etxetik atera behar duten familientzat (bereziki guraso bakarreko familientzat), arrazoi justifikatuak eta/edo presakoak direla medio.
 - Autonomia-erkidegoek, toki entitateetako gizarte zerbitzuekin lankidetzan, krisi honen ondorioz bereziki ahulak diren pertsonen laguntzeko ezinbestekotzat eta presazkotzat jotzen dituzten beste neurri batzuk, behar bezala justifikatuak.
- 2019ko toki entitateen superabitaren xedea, "Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Sustapena" izeneko 23. gastu-politikako inbertsio-gastuak finantzatzeko erabili ahal izango da. Gastu politika honen barruan, salbuespen gisa eta xedapen honen ondorioetarako soilik, aurreko atalean adierazitako prestazioak sartuko dira.
- Kontsumitzaile ahulei ur- eta energia-hornidura bermatzeko neurriak.
- Urrutiko lanaren -telelanaren- lehentasunezko izaera.
- Ordutegia egokitzeko eta lanaldia murrizteko eskubidea.
- Komunikazio elektronikoen zerbitzuen eta banda zabaleko konexioen mantentze-lanak bermatzeko neurriak.
- Zerga arloan epeak eteteko neurriak, ondoko gai hauetan:
 - Ordainketa epeak.
 - Onartutako geroratzeko- eta zatikatze-akordioaren epeen mugaegunak eta zatikiak
 - Enkanteen garapenarekin eta ondasunen esleipenarekin lotutako epeak



- Errekerimenduei, enbargo-eginbideei eta zerga arloan eragina duten informazio-eskaerei erantzuteko epeak, eta hainbat jardunbideetan alegazioak aurkezteko epeak.
- Berraztertzeko errekurtsoen eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenak jakinarazitzat joko dira ebazpena jakinarazteko ahalegina frogatzen denean, errege lege-dekretua indarrean jartzen denetik 2020ko apirilaren 30era bitartean.
- Zerga-egintzen aurka errekurtsu edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzeko eta prozedura ekonomiko-administratiboetan emandako ebazpenen aurka administrazio-bidetik errekurritzeko epea ez da hasiko epe hori amaitu arte, edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren arabera jakinarazpena egin arte, baldin eta jakinarazpena une horretatik aurrera egin bada.
- **Sektore publikoko kontratazioaren arloan hartutako neurriak, COVID-19 pandemiaren eraginak arintzeko:**
 - Sektore publiko osoa eragiten dute, 40/2015 Legeak xedaturiko subjektu guztiak barneratuz.
 - Jarraian, edo hurrenez hurren, ematen ari diren zerbitzu eta hornidurak: COVID-19aren edo horren inguruan hartutako neurrien ondoren, haiek gauzatzea ezinezkoa bada, AUTOMATIKOKI ETENDA GELDITUKO DIRA. Kontratuak jarraitzen dela kontratazio-organismoak jakinarazi behar dio kontratistari, hura gauzatzeko ezintasuna eragin duen egoera amaitu ondoren. Erakunde adjudikatzailak kontratistari ordaindu beharko dizkio etendura-aldian benetan jasandako kalte-galerak, **aldez aurretik hala eskatuta** eta kontratistak egiazkotasuna, eraginkortasuna eta zenbatekoa modu frogagarrian egiaztatu ondoren. Kalte-ordainak ondoko kontzeptuak jasoko ditu, beti ere etenaldiak irauten duen epearekin lotuta:
 - Kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonalaren ordainsariak eta Gizarte Segurantzako gastuak.
 - Bermearen mantentzea.
 - Kontratuaren exekuzioarekin zuzenean lotutako errentak, eta makinaria, instalazio eta ekipoen mantentze-lanak, baldin eta kontratistak egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan direla beste helburu batzuetarako erabili kontratua etenda egon bitartean.
 - Kontratuaren xedearekin lotutako aseguru-polizen gastuak.
 - Modu jarraituan ematen diren zerbitzu edo hornidura kontratuetan, kontratua amaitu eta berria formalizatu gabe egongo balitz, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 29.4 artikuluan xedaturiko luzapena eman ahal izango du kontratazio organoak.
 - Artikulu honen arabera sektore publikoko kontratuak etetea ez da, inola ere, kontratuak suntsiarazteko kausa izango.
 - Gainontzeko zerbitzu- edo hornidura- kontratuen kasuan, kontratista berandutu egiten bada COVID-19ari edo pandemia horri buruz hartutako neurriek eraginda, kontratua betetzeko epea luzatu ahal izango da, eta epe hori, gutxienez, aipatutako arrazoigatik galdutako denboraren bestekoa izango da, kontratistak epe laburragoa eskatu ezean.
 - Obra-kontratuetan, COVID-19ari edo pandemia horri buruz hartutako neurriek kontratua gauzatzeko jarraitzea eragozten badute, kontratistak kontratua etetea edo exekuzio epea luzatzea eskatu ahal izango du, prestazioa ematea eragozten duen egitatezko egoera gertatzen denetik prestazio hori berriz hasi arte. Kontratuak jarraitzen dela kontratazio-organismoak jakinarazi behar dio kontratistari, hura gauzatzeko ezintasuna eragin duen egoera amaitu ondoren. Epea etetea edo luzatzea erabakita, kontzeptu hauek baino ez dira ordainduko:
 - Kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonalaren ordainsariak eta Gizarte Segurantzako gastuak.
 - Bermearen mantenua.
 - Kontratuaren exekuzioarekin zuzenean lotutako errentak, eta makinaria, instalazio eta ekipoen mantentze-lanak, baldin eta kontratistak egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan direla beste helburu batzuetarako erabili kontratua etenda egon bitartean.
 - Kontratuaren xedearekin lotutako aseguru-polizen gastuak.
 - Aurreko atalean xedaturiko baldintzez gain, obrako kontratistak honako hauek egiaztatu behar ditu:
 - Kontratistak, azpikontratistak eta hornitzaileek lan- eta gizarte-betebeharretan egunean dagoela.
 - Kontratista nagusiak bere azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko betebeharrak egunean dituela.
 - Indarrean dauden emakida-kontratuen kasuan (obra zein zerbitzuenak), COVID-19ak edo pandemia horri buruz hartutako neurrien ondorioz kontratuaren exekuzioa eten egingo balitz, kontratistak eskubidea izango du oreka ekonomikoa berrezartzeko. Horretarako, bi aukera egongo dira: edo kontratuaren epea luzatzea, gehienez %15ean, edo neurri ekonomikoak aldatzea. Konpentsazioak diru-sarreraren galera eta jasandako kostuen gehikuntza hartuko ditu. Kontratistak gastu horien errealitatea, eraginkortasuna eta zenbatekoa egiaztatu ondoren baino ez da konpentsazioa egingo.



TOLOSAKO
UDALA

- Nolanahi ere, kontratazio organoari dagokio kontratua ezin bete izana aitortzea, eta horren ondoren, kontratua suntsiarazi, epea luzatu edo bertan behera uztea ebazpen justifikatuaren bidez.

Ordutik hona etengabe ari dira argitaratzen arauak, zirkularrak, etab. Bereziki azpimarratuko dira:

- Estatuko Kontuhartzailetza Orokorrek hartutako ebazpenak, inbertsioen egiaztapen materialari eta finantza-kontrol iraunkorra erabiltzeko aukerari buruzkoak, Estatuko Administrazio mailan.
- Ur-honidura, bidaiari eta salgaien garraioa, hirugarren adinekoentzako eta menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako gizarte zerbitzuak, osasunari buruzko neurriak,... arautzen dituenak.
- Neurri ekonomiko eta gizarte-mailako neurriei buruzko xedapenak.

Espero izatekoa da arau-ekoizpen hori ez dela etengo, eta, beraz, unean-unean egokitu beharko dira hartu beharreko neurriak.

Beraz, alarma egoerak dirauen bitartean, jarraibide hauek onartzea proposatzen da.

II. NEURRIEN IZAPIDETZEA

Proposatutako neurri hauek Tolosako Udaleko Zuzendaritza Batzordean aurkeztu ondoren, jakinarazi zaizkie udal departamentu guztiei, eta langileen ordezkariari, beren ekarpenak jasotzeko helburuarekin. Behin izapide horiek burutu ondoren, Alkatetza honek, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.m) atalean xedaturiko ahalmenez baliatuz, ondorengo hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- jarraibide hauek onartzea, Tolosako udaleko zerbitzuen funtzionamendua antolatzeko COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren Alarma Egoerak dirauen bitartean:

I. LAN BALDINTZAK

1.- 546/2020 Dekretuan emandako neurriak mantenduko dira, beti ere Jarraibide hauekin bateragarriak badira. Gainontzeko kasuetan, eta kontraesanik badago bi Dekretuen artean, **Dekretu honetan xedaturiko jarraibideak aplikatuko dira.**

2. Urrutiko edo telelaneko lanaren modalitateak lehentasuna izango du lan presentzialaren aurrean, ahal den kasu guztietan. Beraz, Dekretu honetan xedaturiko kasuez gain, herritarren arreta presentzialeko zerbitzu guztiak itxi egingo dira. Herritarren arreta, modu telefonikoan (telefonoa whatsapp, mezua), telematikoa (Erregistro Elektronikoa, posta elektronikoa), edo presentziala ez den beste moduan egingo da.

3. Lan ez-presentzialaren kasuan, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak erabakiko du, sail bakoitzeko arduradun teknikoak eta politikoak proposatuta, dagokion saileko telelanaren antolaketa, administrazio-unitate bakoitzaren zerbitzuaren jarraitutasuna zainduz.

3. Interes orokorreko arrazoiek hala eskatzen dutenean, lan presentziala eskatu ahal izango zaie enplegatu publikoei, ezinbestekoak diren administrazio-jarduera espezifikokoak egin ditzaten, batez ere funtsezko zerbitzuekin lotuta. Kasu honetan, langilearen presentzia dagokion zentroan ahalik eta laburrena izango da, eta soilik iraungo du beharrezkoa den denbora. Saileko arduradunak idatziz justifikatu beharko du lan presentzialaren beharra. iraunkorra izango balitz, edota langileak egunero bertaratu beharko balu Udaletxera, eta Antolakuntzako zinegotziaren baimena ezinbestekoa izango da.

4. Funtsezkotzat jotako zerbitzuen esparruan, aurreko ataletan definitutako irizpideak aplikatuko dira, ahal den neurrian. Era berean, kasu honetan, dagokion sailean, ahal den guztietan txandakako lan-sistema bat antolatuko da, aurrez aurreko eta telelaneko sistemak Saileko langileak txandakatuz.

6. Udaletxetik kanpo lan egiten duten langileen kasuan (lantaldean), lana era txandatuan antolatzeko sistemak ezarriko dira, non talde bat erreserba moduan etxean egongo den, larrialdi berriei aurre egin ahal izateko. Gainontzeko langileek funtsezko edo/eta arriskurik gabeko lanak egingo dituzte.

7. Udaletxetik kanpo edo herritarrekin harremanetan lan egiten duten langile guztiak beharrezko babes-sistemak edukiko dituzte (eskularruak, maskarak). Jendaurreko arreta, oso salbuespenezkoa eta alde zuzenetik hitzordua eskatuta soilik izango dena, babes-pantailen atzean egingo da, betiere osasun-agintaritzak



ezarritako distantzia eta neurriak errespetatuz. Halaber, langile guztiek eskura izango dituzte higiene-osagaiak (desinfektatzailea, erabilera bakarreko oihalak...). Horretarako, Segurtasun eta Osasun Batzordearen irizpideak jarraituko dira.

8. Langileak ezin badira lantokira sartu hura ixteagatik edo jarduerak aldi baterako eteteagatik, eta ezin badira beste batzuetan birkokatu, haien etxebizitzan emandako denbora benetako lan-denboratzat hartuko da. Halaber, prebentziozko neurrien pean etxean dauden langileen kasuan, edota telelana posible ez den kasuetan.

9. Osasun publikoko larrialdiaren ondorioz bitarteko funtzionarioak izendatu behar badira edo aldi baterako lan-kontratadun langileak kontratatu behar badira, ezohiko izaeraz baimenduko da izendapena edo kontratazioa, eta dauden modalitateetako edozein erabiliko da horretarako.

10. Langileen aldi baterako berresleipena ebatzi ahal izango da funtsezko zerbitzuak bermatzearen. Horretarako, beharra duen Sailaren Arduradunak eskaera egingo du, eta Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebatziko du, eragindako sail guztiei entzun ondoren.

11. Langileen Plantilla osoa, eta bereziki funtsezko eta beharrezko zerbitzuak ematen dituzten langileak, Udalaren eskura egongo dira beren eginkizunetan betetzeak hala eskatzen duenean. Horretarako, Udalaren bulegoetan egoteko edo baliabide telematikoa edo telefonikoen bidez erabiltzeko eskatzen ahalko zaie. Prestasun horrek lanaldiaren gaineko xedapenak salbuesteko aukera emanen du, eta ez du ordainsaririk ekarriko.

12. Udal zerbitzuek, eta bereziki funtsezko zerbitzuek, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, Udalak beretzat gordetzen du bere zerbitzuko langileak erabili eta mobilizatzeko aukera, behar dituzten zerbitzuak emateko, norbere prestakuntza eta gaitasuna kontuan hartuz. Horretarako, udal langile guztiek, udaltzainak izan ezik (azken hauen jarduera araudi bereziek xedatzen dutelako), prest egon beharko dute behar diren jarraibideak jasotzeko.

13. Telelanaren antolaketa, Dekretu honen 1. Eranskinean xedatzen diren baldintzak kontuan hartuko dira. Halaber, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak ahalmena izango du baldintza hauek aldatzeko, egoerak eskatzen badu, eratu den Prebentzio Mahaiari entzun ondoren.

II. UDAL ZERBITZUEN SAILKAPENA ETA JARDUTE-IRIZPIDEAK.

A. Zerbitzuen sailkapena: bizi dugun salbuespenezko egoerak eta horri aurre egiteko onartutako arauen multzoak, Tolosako Udalak ematen dituen zerbitzuak aztertzeraz eta sailkatzeraz behartzen gaitu, aurreko atalean adierazitako helburuak lortzen direla bermatzeko. Sailkapen honen oinarri juridikoa 463/2020 Errege Dekretua, alarma egoera aitortzen duena, izango da.

Era honetan, Tolosako Udaleko zerbitzuak ondorengo eran sailkatzen dira:

1. **FUNTSEZKO ZERBITZUAK.** Jarraian zerrendatzen diren zerbitzu guztiak funtsezkotzat jotzen dira:
 - a) Segurtasun publikoa eta babes zibila.
 - b) Lan Arriskuen Prebentzioko Zerbitzua.
 - c) Eraikin eta eremu publikoen garbitasuna eta desinfekzioa, eta haien mantenua.
 - d) Herritarren sektore ahulenei arreta berezia, Dekretu honetan eta Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioek xedaturiko terminoetan.
 - e) Indarkeria matxistaren biktimei arreta-zerbitzua.
 - f) Herritarren arreta telefonikoa eta telematikoa (UDATE, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa nagusiki).
 - g) Tolosako Udaleko eta bere sektore publikoko zuzendaritza eta koordinazioa.
 - h) Erregistro Orokorra.
 - i) Pertsonen eta materialaren trasladoaren bermea, beharrezkoa den kasuetan, COVID-19 pandemiaren inguruko neurriengatik.
 - j) Udalaren funtzionamenduak behar dituen baliabide teknologiko eta telematikoen mantenua eta egokitzapena, egoera berezi honek sorturiko beharren arabera.
 - k) Fiskalizazio, Kontabilitate eta zerga-bilketako lanak, beti ere funtsezko zerbitzuekin lotutakoak: larrialdiko kontratazioak eta haien ordainketa, zerga-bilketako neurri bereziak, COVID-19 pandemiaren ondoren hartutako neurrietatik eratorriko sarrera eta gastuak...



- l) Lege-aholkularitza eta fede publikoa, funtsezko zerbitzuen ezarpen eta mantenuarekin lotutakoak.
 - m) Nominak eta Gizarte Segurantzako kudeaketa, eta beharrezkoak diren kontratazio, izendapen, eta pertsonal arloan beharrezkoak diren gainontzeko neurrien kudeaketa.
 - n) Hileta-zerbitzuak.
 - o) Orokorrean, COVID-19 gaitzari eusteko neurrien ezarpenak eskatzen dituen zerbitzu guztiak, horien artean etxean dauden pertsonen egonaldia arintzeko on-line kultur-, aisialdi-, eta kirol-zerbitzuak eskaintzea, zerga alorrean ekimenak onartzea, kontratuen azterketa ekonomikoak gauzatzea, etab.
2. **ZERBITZU BEHARREZKOAK:** Horiek zehazteko, 465/2020 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedaturiko irizpideak aplikatuko dira. Beraz, ondoko hauek beharrezkotzat joko dira:
- a) Fakturen ordainketa hornitzaile eta kontratistei. Era honetan, fakturen ordainketa ezin da eten, ahal den neurrian.
 - b) Indarrean dauden eta atzeratu, eten, edo aldatu ez diren kontratuen exekuzioa.
 - c) Interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larria eragin duten espedienteak, edo interesatuaren onespena egiaztatu ondoren (espedientearen egiaztatuak): **antolamendu- eta instrukzio-egintzak soilik.**
 - d) Kontuhartzaitzari, Zerga bilketari eta Fede Publikoari eta Aholkularitza Juridikoari dagozkion funtzioak, funtsezkoak eta beharrezkoak diren zerbitzuekin lotuta.
 - e) Zergen bilketarekin lotutako zerbitzuak, alarma egoera arautzen duten arauak xedaturiko aldatetekin.
 - f) Ofizioz hasitakoak eta publikoari, interesatuari edota hirugarrenei eragiten ez dizkieten espedienteak (barne izaerakoak). Kasu honetan, justifikatu behar da espedientea izapidetzea ezinbestekoa dela.
3. **GAINONTZeko ZERBITZUAK:** Bi mota bereizi behar dira:
- a) Interes publikoko arrazoi justifikatuak direla medio (**espedientearen justifikatu behar dira**), hirugarrenen eskubideak eragiten ez dituzten, eta informazio publikorik behar ez duten prozedurak.
 - b) Bestelako zerbitzuak: Gainontzeko guztiak. Adibide gisa, ez mugatzailea, honako hauek zerrendatu dira:
 - (a) Sustapen jarduerarekin lotutakoak: Dirulaguntzak
 - (b) Udalaren interbentzioa jarduera pribatuetan: baimenak, lizentziak, aurretiazko komunikazioak.
 - (c) Udalaren baimenak eta emakidak jabari publikoan.
 - (d) Zehatzeko edo zigortzeko ahalmenetik eratorritakoak.
 - (e) Hautaketa prozedurak.

B. Jardute-irizpideak: Udal sailen funtzionamendua sailkaturiko zerbitzuen inguruan garatuko da. Beraz, ondoko irizpideak ezartzen dira:

1. **Funtsezko prozedurak:** Funtsezko zerbitzuekin lotutako prozedurak dira. Erabateko lehentasuna izango dute izapidetzeko eta gauzatzeko garaian.
 - a) Udal sail bakoitzeko arduradunak zerrenda bat osatuko du funtsezko zerbitzuekin loturiko **espedienteekin**, eta espediente horiek izapidetzeko zereginak antolatu eta bideratuko ditu bere ardurapeko sailean. Espediente hauen izapidetzeak lehentasuna izango du.
 - b) Halaber, dagokion saileko arduradunak zerrenda bat osatuko du funtsezko zerbitzuen ezarpenak behar dituen **zereginekin** -espediente batean jasotzen ez direnak-, eta zeregin horiek betetzeko beharrezkoak diren jarduerak antolatu eta bideratuko ditu bere ardurapeko saileko pertsonalaren artean.
 - c) Kasuz-kasu, saileko arduradunak zehaztuko du zein diren udal bulegoetan fisikoki agertzea ezinbestekoa duten funtsezko eginkizunak, eta zein kasutan ez den beharrezkoa presentzia hori izatea. Langilearen presentzia justifikatu behar da, azken irtenbide gisa, funtsezko edo beharrezkoak diren zerbitzuak betetzeko, Dekretu honen I Jarraibidearen 3. atalean xedatutakoaren arabera.
 - d) Zerbitzuen antolakuntzarako, Dekretu honetan xedaturiko neurriak eta Segurtasun- eta Osasun Batzordeak ezarritako baldintzak eta neurriak errespetatu behar dira.



- e) Dagokion saileko arduradunak arreta presentziala egiten duen pertsonalaren egoeraren jarraipen berezia egingo du, osasun- eta segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatuz. Horrela ez bada, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak beharrezkoak diren neurriak ebatziko ditu, azken honek egin ditzan, eta horien berri emango zaio Prebentzio Zerbitzuari, hark egiten duen aurreneko bileran.
- f) Prebentzio Mahaiak, funtsezko zerbitzuak bermatzeko neurrien etengabeko jarraipena egingo du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu. Funtsezko zerbitzuen inguruko jarraipenak lehenetsuna izango du gainontzeko zerbitzuen aurrean.
2. **Beharrezko prozedurak:** Funtsezko prozedurei buruzko jarduerak burutu ondoren, sailtako arduradunek beharrezkoak diren zerbitzuekin lotutako jarduerak burutuko dituzte, aurreko atalean xedaturiko metodologia jarraituz. Halaber, aurreko ataleko c), d), e) eta f) puntuetan xedaturikoa betekoa da. Prozedura hauetan ondoko egoerak bereiziko dira:
- a) **Ebatz daitezkeen prozedurak:** fakturen ordainketak, exekutatzan ari diren kontratuen izapidezko egintzak (obra-ziurtagirien onespina, kontratuaren exekuzioari buruzko txostena, ...).
- b) Soilik **antolamendu- eta instrukzio-egintzak** onartzen dituzten prozedurak (adibidez: txostenak): **Interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larria eragin duten espedienteak edo prozedurak, edo interesatuaren adostasuna espresuki egiaztatzen denean espedienteak:**
- (a) Kasu hauetan justifikatu behar dira interesdunaren kalte larria, halaber epeen etenaldia bertan behera uzteko haren onespina, edo haren adierazpena etendura altxatzearekin. Kontuan hartzen badugu arau orokorra epeen etenaldia dela, irizpide hau era murriztailean eta salbuespenezkoan aplikatuko da.
- (b) Prozedura honetan aurrena Dekretua eman behar da, interesdunak alde aurretik adostasuna emanda prozedurarekin jarraitzeko, eta ondoren espedientearekin jarraitu baina ez ebatzi. Era guztietan, pausoak eman daitezke, (c) eta (d) puntuetan adierazitako salbuespenekin, eta txostenaren edo erabakiaren zirriborroa prestatuta utz daitezke, data eta sinadurarik gabe. Alarma egoerak edo horren luzapenak xedaturiko etete-neurriak amaitzen direnean, berehala bideratuko da.
- (c) Inolaz ere ezingo da espedientearen edo prozeduraren etenaldia bertan behera utzi, prozeduraren jarraipenak hirugarrenei edo interes publikoari kalterik sortuko balitzaie.
- (d) Halaber, eta prozeduren segurtasun juridikoa bermatzeko, ez dira gauzatuko hirugarrenen parte-hartzea eskatzen duten antolamendu- eta instrukzio egintzak: beste administrazioei informazio edo txostenen eskaerak, hirugarrenei enplazamenduak, informazio publikoa, etab. Kasu horietan, sail bakoitzak prestatuko du beharrezkoa den dokumentazioa, datarik eta sinadurarik gabe, eta Alarma Egoera edo horren luzapenak xedaturiko etete-neurriak amaitzen direnean, berehala bideratuko du.
- (e) **Departamentu bakoitzak karpeta bat irekiko du bere unitatean (Idazkaritza, Kontuhartzaitza.....), eta bertan bi Excel edo koadrotan, egiten diren dokumentuen zirriborroak (Ordenazio- eta Antolamenduko dokumentuen zirriborroak jasotzen dituen koadroa, eta Ebazpenen zirriborroak jasotzen dituenena) sailkatuko ditu. Koadro bakoitzean ondoko datuak jasoko dira: Espedientearen kodea (Espedienteak kudeatzeko programan, derrigorrezkoa izango dena), Xedea, Interesatua eta dokumentu-mota (Txostenak/Iragarkiak/ koadro batean, eta Dekretua/ Tokiko Gobernu Batzarreko proposamena/Irizpena beste koadroan).**
3. **Gainontzeko prozedurak.** Printzipio orokorra: Prozedura guztiak etenda daude.
- a) **Salbuespenak:**
- (a) ohiko izaerako eta hiru eskaintza behar ez duten kontratu txikiak,
- (b) obra-proiektuen onspenak,
- (c) fidantzen itzulketak arazorik ez dagoenean,
- (d) orokorrean, ofizioz hasitakoak eta publikoari, interesatuari edota hirugarrenei eragiten ez dizkieten espedienteak (barne izaerakoak).
- b) **Dirulaguntzei buruzko espedienteak:**
- (a) deialdia ez bada onartu: Sail bakoitzak prestatuko du deialdia egiteko beharrezkoa den dokumentazioa, datarik eta sinadurarik gabe, eta alarma egoerak edo horren luzapenak xedaturiko etete-neurriak amaitzen direnean, berehala bideratuko du. Dokumentuen erreferentziak aurreko ataleko (e) paragrafoan adierazitako koadroetan gordeko dira.
- (b) Eskaerak aurkezteko epea ireki bada alarma egoeraren aitopenen aurretik: iragarki bat argitaratu behar da Udaleko web orrian, eskaerak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 14n eten egin zela adieraziz. Halaber, adieraziko da epe horri jarraipena emango zaiola Alarma



- Egoerari edo bere luzapenari amaiera jartzen zaionean, eta horren berri emango dela Tolosako Udaleko web orrian.
- (c) Eskerak egiteko epea amaituta badago, eskaeren balorazioaren zirriborroa egin ahal izango da, sinadura eta datarik gabe, eta pendiente dagoen dokumentazioaren koadroan jasoko da haren erreferentzia.
 - (d) Ezingo da inolako ebazpenik hartu.
 - (e) Alarma egoeraren aitopenearen aurretik (martxoaren 14a baino lehenago) onartutako dirulaguntzen ordainketa burutu beharko da.
- c) **Baimenak, lizentziak, eremu pribatuetan:** Orokorrean, etenda daude prozedura guztiak. Salbuespen gisa, azter daitezke aurretiazko komunikazioko kasuak (soilik ordenazio- eta antolakuntzako egintzak eskatzen dute), beti ere B.2.b) atalean xedaturiko baldintzak betetz gero.
- d) **Udalaren baimenak eta emakidak jabari publikoan:** Jabari publikoa erabiltzeko lizentzia eta baimen guztiak etenda daude -Coworking eremua barne-, alarma egoerak edo bere luzapenak dirauten bitartean:
- (a) Etenaldi hau Udaleko web orrian argitaratuko da.
 - (b) Horretaz gain, Elkarte eta kolektiboei lagatuko edo baimendutako lokalak eta gainontzeko eremuak aldi baterako itxi behar dira. Beraz, lokal edo eremu horien erabilera debekatuko da, itxiko dira eta sarbidea prezintatuko da. Edozein urraketa, alarma egoeraren zehapen gisatzat hartuko da, eta 4/1981 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera zigortuko da. **Honako Elkarte hauek salbuetsita gelditu dira**, eta udalaren jabetzako lokalak erabili ahal izango dituzte, beti ere Osasun-agintaritzak ezarritako aginduak betetz: AECC (telefono arretarako), Ortzadar, Gurutze Gorria, DYA, Zutani, CEAR, 28 Kanala eta Ataria.
 - (c) Erreferentziazko sailak komunikazio bat bidaliko dio berarekin lotura duen elkarte edo kolektibo bakoitzari, etenaldia eta erabilera debekua jakinaraziz, 2. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera.
 - (d) Coworking-eko erabileraren kasuan, Udalak itzuliko die erabiltzaileei kanonaren zati proportzionala.
- e) **Zehatzeko edo zigortzeko ahalmenetik eratorritako prozedurak:** Orokorrean, etenda daude Alarma Egoerak edo bere luzapenak dirauten bitartean.
- f) **Hautaketa prozedurak:** Etenda daude alarma egoerak edo bere luzapenak dirauten bitartean.
4. Udaleko sailek, ahal izanez gero, aurreratuko dute espediente hauen osaketa, alarma egoera edo horren luzapena amaitzen direnean haien izapidetzea prest edukitzeko:
- a) Udal sail bakoitzeko arduradunak zerrenda bat osatuko du aurreratzen ari diren espediente eta prozedurekin, eta horiek izapidetzeko zereginak antolatu eta bideratuko ditu bere ardurapeko sailean.
 - b) Espedienteak, era elektronikoan landuko dira, IZFEk jarritako programan.
 - c) Sail bakoitzeko langileek dagokien unitatean ireki den karpeta eta dauden koadroetan sartuko dituzte erredaktatu edo landu dituzten dokumentuen zirriborroen aipamenak (Ordenazio- eta Antolamenduko dokumentuen zirriborroak jasotzen dituen koadroa, eta Ebazpenen zirriborroak jasotzen dituen). Aipamenak ondoko datuak jasoko dira: Espedientearen kodea (Espedienteak kudeatzeko programan, derrigorrezkoa izango dena), Xedea, Interesatua eta dokumentu-mota (Txostenak/Iragarkiak/ koadro batean, eta Dekretua/ Tokiko Gobernu Batzarreko proposamena/Irizpena beste koadroan).
5. **Alarma egoeraren neurriekin lotutako espediente guztiak izapidetu eta ebatziko dira, inolako etenaldirik gabe.**
6. Sail bakoitzak irekita dituen espediente bakoitzean, haren etenaldia jasotzen duen eginbidea jasoko du, 3. eranskinean adierazitako eredu jarraituz. Beste eredu bat aukeratuz gero, Idazkaritzaren onospena beharko du.
7. Alarma egoerak irauten duen epealdian jasotzen diren eskaeren kasuan, espedientea ireki eta interesatuari erantzun zaitzaio 4. eranskinean adierazitako eredu erabiliz.

III. KONTRATAZIOKO ESPEDIENTEEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Kasu honetan, 8/2020 Errege Dekretu Legearen 34. artikuluan eta 1/2020 Zirkularrean, martxoaren 16koan, Ondare eta Kontratazioko Zuzendaritzak emandakoan. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Publikoa Koordinatzeko Zerbitzuak emandako jarraibideak kontsultatu dira.



Egoera eta neurri hauek bereizi dira:

A. EXEKUTATZEN ARI DIREN KONTRATUAK. Printzipio orokorra exekuzioaren jarraipena da, posible denean. Horretaz gain:

1. **Sail bakoitzak aztertuko ditu bere ardurapeko kontratuak, eta hasierako txosten bat egingo du kontratu bakoitzarekin, zerbitzu, hornidura edo obrari buruzkoa, ondoko hauek identifikatuz :**
 - a) Arazorik eta aldaketarik gabe jarraitzen diren kontratuak. Kasu honetan adierazi besterik ez du egingo, inolako txostenik gabe.
 - b) Alarma egoeraren ondoren eman ezin diren zerbitzu edo hornidura jarraituak (adibidez, hirugarren adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua), eta arrazoi horrengatik **automatikoki etenda gelditu direnak.**
 - c) Alarma egoeraren ondoren eman ezin diren gainontzeko zerbitzu edo hornidurak (proiektu baten idazlana, obra baten zuzendaritza...), edo bete ezin diren obren epeak, eta arrazoi horrengatik **horiek betetzeko epeak atzeratu behar direnak.**
 - d) Arrazoi berdinegatik obra edo zerbitzuen emakidetan hartu behar diren neurriak, **oreka ekonomikoa berrezartzeko.**
 - e) Alarma Egoeraren aitortpenaren eraginez **aldatu behar diren kontratuak.** Adibidez: eraikinak garbitzeko zerbitzua (eraikin gutxiago garbitu, baino intentsitate handiagoarekin eta pertsonalarentzat segurtasunezko neurri bereziakin), eremu publikoak garbitzeko zerbitzua (desinfekzio eta higieneko neurri bereziak), etab.
2. Behin kontratu bakoitzari buruzko dagokion saileko arduradunaren txostenak jaso ondoren, Tolosako Udaleko Kontratazio azpisailak prestatuko ditu beharrezkoak diren abisuak eta iragarkiak, b), c) eta d) ataletan jasotzen diren egoeretan egon daitezkeen kontratistak informatzeko. Abisu hauek helaraziko dizkio sail bakoitzak bere ardurapeko kontratistari.
3. **Kontuan hartu behar da kontratuen aplazamenduak edota kalte-ordainak eta bestelako neurriak onartuak izan daitezen, kontratistak aurkeztu behar duela dagokion eskaera eta bete behar dituela 8/2020 Errege Dekretu Legearen 34. artikuluan xedaturiko baldintzak.**
4. Atal honetako **1. b) , c) eta d)** paragrafoetan jasotako egoerak emanez gero, eta kontratista batek kalte-ordaina, aplazamendua, edo emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzeko neurriren bat eskatuko balu, ondoko prozedura jarraituko da:
 - a) Dagokion sailak egindako eskaerari buruzko txostena emango du 48 orduko epean, **kontratistak bete behar dituela 8/2020 Errege Dekretu Legearen 34. artikuluan xedaturiko baldintzak bete dituela egiaztatuz.** Egiaztapen hori egin ahal izateko Kontratistak ez ba du aurkeztu beharrezkoa den dokumentazioa, saileko arduradunak eskaera jaso eta 24 orduko epean egingo dio errekerimendua eta 48 orduko epea eman, falta zaion dokumentazioa aurkez dezan.
 - b) Kontratazio azpisailak kontratistaren eskaera, aurkeztutako dokumentazioa eta saileko arduradunaren txostena jasoko ditu, eta eskaera informatu ondoren, dagokion ebazpena proposatuko dio kontratazio organoari. Ondoren, kontratistari egingo dio ebazpenaren jakinarazpena. **Izapide hauek burutu behar ditu gehienez 5 eguneko epean, kontratistak bere eskaera aurkezten duenetik kontaktzen hasita.**
5. Atal honetako **1.e)** paragrafoan xedaturiko kontratuen aldaketak, emergentziazko izapidetza izango dute, eta 9/2017 Legearen 120. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira. Kasu guztietan, aplikagarri zaien kontratuen legeak xedaturiko mugak izango dituzte aldaketa horiek. Bestelako kasuan, larrialdiko kontratu berri gisa izapidetuko dira. Prozedura ondokoa izango da:
 - a) Dagokion sailak aldaketak eragindako zerbitzua edo hornidura kontratua zehaztuko du, eta 9/2017 Legearen 120. artikuluan xedatutakoaren arabera larrialdiko izapidea erabili ahal izango du. Hala ere, kontratuaren aldaketak eragiten duen prezioaren igoera edo jaitsiera kontuan hartuko du, jadanik dagoen kontratuaren aldaketa edo kontratu berria izango den jakiteko.
 - b) Ondoren, txosten bat egingo du, ondorengo hauek jasotzen: larritasunaren arrazoia, egindako aldaketen edo kontratu berriaren xedea eta deskripzioa, prestazioen zehaztapena, eta horien azterketa ekonomikoa.
 - c) Txostena, Kontratazio azpisailak igorriko da, eta azken honek larrialdiko kontratazioari edo kontratua aldatzeari buruzko ebazpena idatziko du. Ondoren, burutuko ditu beharrezkoak diren izapideak espediente osatzeko.

B. LIZITAZIO FASEAN DAUDEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK. Kasu honetan une hauek bereizi behar dira:



1. **Eskaintzak aurkezteko epea irekita baldin badago**, prozedura eten egingo da, eta iragarki bat argitaratuko da Kontratugilearen Profilean eta, bere kasuan, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, honako hau adieraziz: eskaintzak edo proposamenak aurkezteko ezarritako epeak eten egingo diela, eta alarma-egoera amaitu eta hurrengo egunean berrekingo zaiela. Behin egoera hau amaituta, eskaintzak edo proposamenak aurkezteko fasean dauden espedienteetan, iragarkiak argitaratuko dira kontratatzailearen profilean, haiek aurkezteko epe berriak adierazita (ikus 5. eranskina).
2. **Balorazio fasean dauden espedienteak**: prozedurak eten egingo dira alarma egoerak edo bere luzapenek dirauten bitartean, eta egoera hori argitaratuko da Kontratugilearen profilean.
3. **Kalitatearen eta prezioaren aldetik eskaintzarik onena aurkeztu duten lizitatzailerik edo lizitatzailerik aurretiko baldintza betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko fasean dauden espedienteetan (esleipenduna izateko proposamena luzatuta dagoenean)**, etenda geratuko dira administrazio-jarduera horiek egiteko epeak. Hala ere, enpresa esleipendunek, beren borondatez, aurreko eskakizunak betetzen badituzte, kontratazio-espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango dute eta Kontratazioaren arloko errekurso bereziaren mende ez dauden kontratuak formalizatu ahal izango dira, enpresa esleipenduna ados badago. Kontratuaren formalizazioak ondoko salbuespenak ditu, eta hura gauzatzeko epea eten egingo da:
 - a) Kontratua helegite bereziaren mende baldin ba dago. Kasu honetan, kontratua formalizatzeko 15 eguneko epea eten egingo da, eta alarma-egoera amaitu eta hurrengo egunean berrekingo zaio.
 - b) Enpresa esleipendunak bere prestazioa ezin badu gauzatu alarma egoeraren ondorioz.

C. PRESTAKUNTZA FASEAN DAUDEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK. Kontratazio-espedienteak prestatzeko antolakuntza eta instrukzio egintzak normaltasunez izapidetu ahal izango dira. Hala ere, lizitazioak ez dira hasiko, prozeduren segurtasun juridikoa bermatzeko. Udal sailek, ahal izanez gero, aurreratuko dute espediente hauen dokumentazioa, alarma egoera edo horren luzapenak amaitzen direnean haien izapidetzea prest edukitzeko:

- a) Udal sail bakoitzeko arduradunak zerrenda bat osatuko du aurreratzen ari diren espediente eta prozedurekin, eta horiek izapidetzeko zereginak antolatu eta bideratuko ditu bere ardurapeko sailean.
- b) Espedienteak, era elektronikoan landuko dira, IZFEk jarritako programan.
- c) Sail bakoitzeko langileek dagokien unitatean ireki den karpetan eta dauden koadroetan sartuko dituzte erredaktatu edo landu dituzten dokumentuen zirriborroen aipamenak (Ordenazio- eta Antolamenduko dokumentuen zirriborroak jasotzen dituen koadroa, eta Ebazpenen zirriborroak jasotzen dituen). Aipamenak ondoko datuak jasoko dira: Espedientearen kodea (Espedienteak kudeatzeko programan, derrigorrezkoa izango dena), Xedea, Interesatua eta dokumentu-mota (Txostenak/Iragarkiak/ koadro batean, eta Dekretua/ Tokiko Gobernu Batzarreko proposamena/Irizpena beste koadroan).
- d) Espedienteen izapidetzea aurreratuko da, eta alarma egoera edo bere luzapenak amaitzen direnean, amaitutako espedienteak kontratazio-organoari aurkeztuko zaizkio, hark onar ditzan eta lizitazioa hastea erabaki dezan.

D. 465/2020 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 4. zenbakian xedatutakoaren arabera, etete-neurriak ez diela eragingo alarma-egoera deklaratzeari eragin duten gertaerekin zerikusia duten kontratazioei.

E. Ohiko izaerako eta Dekreturik edo hiru eskaintzak behar ez dituzten kontratu txikiak normaltasunez izapidetu eta esleituko dira, zera, beren balio zenbatetsia 3.000 € baino txikiagoa bada.

F. Gainontzekoan, jarraituko dira Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformak emandako irizpideak.

BIGARRENA.- Jarraibide hauek Tolosako Udaleko Zuzendaritza Batzordeari eta udal sail guztiei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Udaleko Osoko Bilkurari dekretu honen berri ematea, egiten duen lehenengo bilkuran.

1. ERANSKINA

KORONABIRUSAK SORTUTAKO EGOERARI AURRE EGITEKO, LANALDI EZ PRESENTZIALA ETA PRESENTZIALA UZTARTZEKO JARRAIBIDEAK



1. Egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak

Lanaldi ez-presentzialean egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak Udaleko sail bakoitzaren arduradunaren eta langilearen artean adostuko dira. Aldian-aldian zeregin hauek berraztertu eta berrezarriko dira, telelanak indarrean dirauen bitartean.

Lanaldi ez-presentzialean zein presentzialean dabilen langile bakoitzak astean zehar egindako zereginen eta emaitzen agiri bat bidaliko dio ostiraleko azken orduan sail bakoitzeko buruari. Honek, denak bildu, eta dagokion zinegotzi arduradunari igorriko dizkio. Agiri bakoitzeko txosten eredia sail horretako arduraduna den zinegotziarekin adostuko da.

Sail bakoitzeko buruak lanaldi ez-presentzialean zein presentzialean ari diren langileek era koordinatuan lan egiteko neurriak hartuko ditu, hala dagokionean astean zehar lanaldi mota txandakatuz, edo/eta bakoitzaren eginkizunak ondo zehaztuz eta, hala dagokionean, behar berrietara egokituz.

2. Komunikazioa

Lanaldi presentzialean zein ez presentzialean ari diren langileen arteko komunikazioa ezinbestekoa izango da, bai chat bitartez zein bideokonferentziaz. Horretarako, Udalak komunikazio birtuala ahalbideratuko duen aplikazio bat eskainiko du, langile guztiek eskuragarri izan dezaten.

Lanaldi ez presentzialean ari diren langile guztien mahai gaineko telefonoa, bakoitzaren telefono mugikorrera desbideratuko da lanean ari den bitartean, erantzuna eman dezan. Norberaren mugikorreko zenbakia ez da ikusgai izango.

3. Bileren maiztasuna.

Asteartero, Antolaketa/Herritarrak/Lurraldeko asteroko bilera egingo da, birtualki, goian aipatutako baliabideen bitartez. Bertan, lehenengo puntuan aipatu den agiria aztertuko da, eta lanen deskargua egingo da.

Beste bilera presentzialen bat egin behar bada, Segurtasun eta Osasun Batzordeak ezarritako baldintzen arabera egin beharko da, eta adostutako protokoloa bete beharko da (garbiketa arauak...).

Azkenik, beste edonork beste edonorekin lanaren gaineko kontsultaren bat egin behar badu, telefono edo tresna birtualen bitartez egin beharko da, kontsulta presentziala saihestuta.

4. Fitxategiak bidali eta gordetzeko modua

Fitxategiak bidaltzeko orduan, IZFEk bere weborrian erabilgarri duen BIDALI izeneko tresna hobesten da (webtransfer antzeko tresna bat da). Tresna honen bitartez tamaina handiko fitxategiak bidali ahal izango dira lantokitik norberaren postara.

5. Etxean egoteko betebeharra.

463/2020 Errege-Dekretuaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, modalitate ez presentzialeko zerbitzuak ematen ari diren langileek ezin izango dute beren etxetik alde egin lanaldian, salbu eta arrazoi justifikatuak daudenean eta alde zuzenetik saileko arduradunari jakinarazita. Era guztietan, saileko arduradunak malgutasun neurriak ezarri ahal izango ditu, lanaldiaren ordutegia finkatzeko garaian.

2. ERANSKINA UDAL JABARIKO LOKALEN ERABILERA ETETEKO JAKINARAZPENA

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera dela eta, Tolosako Udalak eten egin du elkarte edo kolektibo horrek duen baimena udal jabariko lokala erabiltzeko. Beraz, alarma egoerak edo bere luzapenek dirauten bitartean, lokal hau itxita egongo da. Erabaki hau urratuz gero, alarma egoeraren zehapen gisatzat hartuko da, eta 4/1981 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera zigortuko da.



TOLOSAKO
UDALA

3. ERANSKINA

SAILABLEAN IZAPIDETZEN ARI DIREN ESPEDIENTEETAN SARTU BEHARREKO EGINBIDEA

Espediente honen izapidetzea eten egin da 2020ko martxoaren 14tik, COVID-19ak eragindako osasun-krisi egoera kudeatzeko ezarritako larrialdi-egoeraren ondorioz alarma egoera aitortzen duen 463/2020 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, alarma egoera horrek edo bere luzapenak dirauen bitartean. **Egoera hori amaituta, epeen zenbaketak jarraituko du.**

4. ERANSKINA

ESKAERAK JASO ONDORENGO ERANTZUNA

Jakinartzatzen dizut momentu honetan epe administratiboak etenda daudela, salbuespen kasuetan izan ezik, horrela arautu baitu alarma egoera deklaratzeko duen 463/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, hirugarren xedapen gehigarrian.

Zure eskaera ez da izapidetuko alarma egoerak irauten duen bitartean, edo haren baldintzak aldatzen ez diren neurrian.

Egoera hori amaituta, epeak berriro ere zenbatzen hasiko dira abian jarri duzun prozedura arautzen duten arauak ezartzen duten moduan.

5. ERANSKINA

KONTRATUGILEAREN PROFILEAN ARGITARATZEKO OHARRA

COVID-19ak eragindako osasun-krisi egoera kudeatzeko ezarritako larrialdi-egoeraren ondorioz, eta Tolosako Udaleko sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontratazio prozedurei dagokienez, eskaintzak, proposamenak eta hautagaitzak aurkezteko epeak eten egiten direla adierazten dugu, larrialdi egoeraren hasierako epea amaitu bitartean. Larrialdi egoeraren luzapena erabakiko balitz, etete-epeak egokitu egingo liriteke.

Larrialdi-egoera amaitu ondoren, kontratugilearen profilean eskaintza, proposamenak eta hautagaitzak aurkezteko azken behin betiko datak argitaratuko dira, baita plikak irekitzeko datak ere.

Como consecuencia del estado de alarma decretado para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, y en relación a los procedimientos de contratación de las entidades que integran el sector público del Ayuntamiento de Tolosa, procede señalar que quedan suspendidos los plazos de presentación de ofertas, proposiciones y candidaturas, hasta la finalización del plazo inicial del estado de alarma, actualizándose conforme a las prórrogas que pudieran dictarse al efecto. Una vez finalizado el estado de alarma, se publicará en el perfil de contratante la fecha final definitiva de presentación de ofertas, proposiciones y candidatura, así como las fechas de aperturas de plikas.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Agindu eta izenpetzen duena alkate-udalburuak, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2020ko martxoaren 26an.

ALKATEA

**Nire aurrean
IDAZKARIA**



TOLOSAKO
UDALA

2020ko martxoaren 30eko 2020/577 dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA

577/2020

OLATZ PEON ORMAZABALEK, TOLOSAKO UDALEKO ALKATEAK, 1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.m) atalean xedatutakoen arabera, honako hauek

IKUSIRIK

LEHENA.- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma egoera deklaratu zuena, BOEn 2020ko martxoaren 14an argitaratua:

<https://boe.es/boe/dias/2020/03/14/pdfs/BOE-A-2020-3692.pdf>

BIGARRENA.- Alkatzaren 546/2020 Dekretua, 2020ko martxoaren 17koa, eta 567/2020 Dekretua, martxoaren 26koa, Udal honetako lan-sail guztiei jakinarazi zitzaizkienak. Horien bidez, Tolosako Udalean alarma-egoeraren onarpena eta horren ondorioz hartutako neurri guztiak bete dira.

HIRUGARRENA.- 2020ko martxoaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dela Diputatuen Kongresuaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpena, zeinaren bidez agintzen baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoeraren luzapena baimentzeko erabakia argitaratzea, alarma-egoera 2020ko apirilaren 12ko 00: 00ak arte luzatzeko

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/28/pdfs/BOE-A-2020-4153.pdf>

LAUGARRENA.- 2020ko martxoaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dela Osasun Ministerioaren SND/295/2020 Agindua, martxoaren 26koa, COVID-19ak eragindako krisi-egoeraren aurrean, gizarte zerbitzuen arloan giza baliabideen alorreko neurriak hartzen dituen:

“Gizarte zerbitzuetako langile guztiek, telelanaren edo bestelako modalitatean lanean ari direla ere, prest egon beharko dute edozein unetan aurrez aurreko lanak egiteko errekerimendua jasotzeko, COVID-19aren ondorioz etxeko isolamendu-egoeran daudenek izan ezik. Aurrekoak eragiten die zerbitzuak garatzeko ezinbesteko diren gutxieneko administrazio-langileei ere”. <https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/28/pdfs/BOE-A-2020-4156.pdf>

BOSGARRENA.- 2020ko martxoaren 29ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dela martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretua, funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzat baimen ordaindu berreskuragarri bat arautzen duena, herritarren mugikortasuna murrizteko, COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan: <https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/29/pdfs/BOE-A-2020-4166.pdf>



TOLOSAKO
UDALA

Lehenengo xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da:

Lehenengo xedapen gehigarria. Enplegatu publikoak.

Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa eta autonomia-erkidegoetan eta toki-erakundeetan eskumena dutenak gaituta daude behar diren jarraibideak eta ebazpenak emateko, zertarako eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren enplegatu publikoen zerbitzu-prestazioa arautzeko, eta helburua da mantentzea enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren Legearen testu bateginean funtsezkotzat jotako zerbitzu publikoak

Beraz, xedapen horretan Tolosako Udalari ahalmena ematen zaio dagokion ebazpenaren bidez (Alkatetza-Dekretua) arautu dezan enplegatu publikoen zerbitzuen prestazioa, funtsezkotzat jotzen diren zerbitzu publikoen funtzionamenduari eusteko helburuarekin.

Era berean, 2020ko martxoaren 26ko Alkatetza Dekretuan, zerbitzuen sailkapena onartu zen eta hiru kategoria ezarri: funtsezkoak, beharrezkoak eta gainerakoak. Sailkapen hori zereginak antolatzeko oinarriztat hartzen da oraindik ere, baina 10/2020 Errege Lege Dekretua onartzeak lana antolatzeko irizpideetan zenbait aldaketa egitera behartzen du, lan-egoera berriak sor baitaitezke, besteak beste, xedapen horretan araututako baimen ordaindu berreskuragarri hori.

Errege Dekretu horretatik Tolosako Udalean eman daitezkeen 3 kasu ondorioztatzen dira:

- 1. Funtsezkoak ez diren zerbitzuetako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria (2.1 artikulua)*
- 2. Ordaindutako baimen berreskuragarri hau aplikatzen ez zaien oinarrizko zerbitzuetako langileak (eranskina. 1. eta 25. paragrafoak).*
- 3. Telelanaren bidez edo zerbitzuak emateko modalitate ez-presentzialetako edozeinetan normaltasunez lan egiten jarraitu dezaketen langileak, Alkatetzaren martxoaren 26ko Dekretuak sailkatutako edozein modalitatetan (1.2 e artikulua).*

Lege mailarekin duen arau hori Tolosako Udalari aplikatuta, honako hau ondorioztatzen da:

1.- Funtsezkoak ez diren zerbitzuetako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria: saileko arduradun bakoitzak sailetako koordinatzaileei –Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak– jakinarazi behar die zer langilek ezin duten etxean lan egin telelanaren bidez edo antzeko modalitate baten bidez, Alkatetza honek funtsezkotzat jotako lanak egitera behartuta ez dauden langileen kasuan, Pertsona horiek, nahitaez, 10/2020 Errege Lege Dekretuan araututako baimen ordainduaren egoerara igaroko dira. Sailetako koordinatzaileak arduratuko dira informazio hori biltzeaz eta koordinatzeaz eta Tolosako Udaleko Gizarte Baliabideetako Sailari horren berri emateaz. Hori guztia bi eguneko epean egingo dute, dekretu hau jakinarazten denetik kontatzen hasita.



2.- Funtsezko zerbitzuetako langileak, baimen ordaindu berreskuragarriako eskubiderik ez dutenak eta zerbitzu publikoen funtzionamenduari eusteko helburuarekin lan egin behar dutenak.

a) Udaltzaingoko funtzionarioak, Beren zereginak egingo dituzte udaltzainburuak emandako lan-aginduen eta goi-mailako administrazioek emandako aginduen arabera. Aurrez aurre emango dute zerbitzua, Antolaketako zinegotzi ordezkariak onartutako salbuespen justifikatuetan izan ezik.

b) Babes Zibileko Zerbitzuko kideak, udaltzainburuaren agindupean egongo direnak. Aurrez aurre emango dute zerbitzua, Antolaketako zinegotzi ordezkariak onartutako salbuespen justifikatuetan izan ezik.

c) Gizarte Zerbitzuetako langileek prest egon beharko dute, azaldutako ministro-aginduaren arabera, eta, horretarako, saileko arduradunak lan-aginduak ezarriko ditu, hala behar duten pertsonen beharrian guztiei erantzuteko. Hala ere, zereginak antolatzean telelana lehenetsiko da, eta aurrez aurreko laguntza behar-beharrezko kasuetara mugatuko da.

d) UDATEko langileek aurrez aurre egingo dute lan, eguneko bi langilez osatutako txandetan, ateak itxita. Hala ere, langile horiek prest egongo dira beste zeregin batzuk egiteko, hala eskatuz gero.

e) Obrako brigadak hiru taldetan banatuko ditu bere kideak: lehenengo taldeko kideak beren etxean geratuko dira, 10/2020 Errege Lege Dekretua xedatutako baimen ordaindu berreskuragarriaren araubidearen pean. Gainerako bi taldeek espazio publikoak garbitu eta desinfektatzeko eta COVID-19ak sortutako osasun-krisiari aurre egiteko behar den materiala banatzeko lanak baino ez dituzte egingo. Ezinbesteko jarduerari eutsiko zaio martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Kontrataturako enpresen langileak, zerbitzua ematen dutenak kale-garbiketan, eraikinen garbiketan, hilerrian eta hileta-zerbitzuetan, Udaltzaingotari trafikoa arautzen laguntzen, premiazko matxurak konpontzen, eta funtsezko zerbitzuetarako kontratatutako gainerako enpresetako langileak. Zerbitzu presentziala emango dute, dagokion saileko zinegotzi delegatuak justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

g) Funtsezko zerbitzuetako gainerako langileek telelanaren modalitatean egingo dituzte lanak, eta unean-unean baino ez dira joango udal-bulegoetara, dokumentazioa bildu edo uzteko.

3.- Langile publikoek normaltasunez lan egiten jarrai badezakete telelanaren bidez edo zerbitzuak emateko modalitate ez-presentzialen bidez, prestazio horrekin jarraituko dute. Ildo horretan, eta egin beharreko zereginak antolatzeko, Alkatzaren 2020ko martxoaren 26ko Dekretuan ezarritako lan-metodologia aplikatuko da, eta saileko arduradun bakoitzak arloko koordinatzaileei jakinarazi beharko die, dagokion asteko bileran,aldi horretarako egin beharreko lanaren programazioa.

Seigarrena.- Alkate-Lehendakaritzaren eskumena da udal gobernua eta udal administrazioa zuzentzea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 a) eta Langileen Buruzagitza (21.1 h) artikulua).

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DU:



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.- Oro har, eta ebazpen honen bigarren eta laugarren ataletan erabakitzen diren salbuespenak salbuespen, Tolosako Udaleko langile publikoek, administrazio-eginkizunetan dihardutenean, beren lanpostuko eginkizunak telelanaren edo urrutiko lanaren bidez betetzen jarraituko dute beren bizilekuetatik, eta gaur egungo ordainsariak jasoko dituzte. Langile horiei ez zaizkie aplikatuko 10/2020 Errege Lege Dekretuan araututako baimen ordaindu berreskuragarriari buruzko xedapenak.

BIGARRENA.- Dekretu honetan zerrendatutako funtsezko zerbitzuak bete behar dituzten langileek modu presentzian edo telematikoa egingo dute lan, zerbitzuaren beharren arabera, kontuan hartuta modalitate telematikoa ahal den guztietan duen lehentasuna eta dekretu honetan ezarritako irizpideak (seigarren atala, 2. puntua). Langile horiei ez zaizkie aplikatuko 10/2020 Errege Lege Dekretuan araututako baimen ordainduari buruzko xedapenak.

HIRUGARRENA.- Lana telematikoki edo urrutitik egiten duten langileei aplikatuko zaizkie orain arte lanaldi-malgutasunari eta familia-kontziliazioari buruz emandako xedapen guztiak.

LAUGARRENA.- Funtsezkoak ez diren zerbitzuei atxikitako langile guztiek, baldin eta telelanaren edo urrutiko lanaren bidez lan egin ezin badute, baimen ordaindu berreskuragarria eta derrigorrezkoa izango dute 2020ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra, biak barne, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera.

Horretarako, saileko arduradun bakoitzak sailetako koordinatzaileei –Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak– jakinarazi behar die zer langilek ezin duten etxean lan egin telelanaren bidez edo antzeko modalitatearen baten bidez, Alkatetza honek funtsezkotzat jotako lanak egitera behartuta ez dauden langileen kasuan. Sailetako koordinatzaileak arduratuko dira informazio hori biltzeaz eta koordinatzeaz eta Tolosako Udaleko Pertsonal Sailari horren berri emateaz. Hori guztia bi eguneko epean egingo dute, dekretu hau jakinarazten denetik kontatzen hasita.

Baimen honek berekin ekarriko du langileek ohiko zerbitzuak ematen ari balira legokiekeen ordainsaria jasotzeko eskubideari eustea, oinarrizko soldata eta soldata-osagarriak barne.

Alarma-egoeraren ondoren eta 2020ko abenduaren 31ra arte ordaindutako baimenaren orduak berreskuratzeko modua langileen ordezkariekin negoziatuko da, martxoaren 29ko 10/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

BOSGARRENA.- Antolakuntzako zinegotzi-delegatuaren esku uzten da instrukzioak eta aginduak emateko ahalmena, plantilaren gutxieneko kopurua edo behar-beharrezkoak diren lan-txandak ezartzeko, eta, horrela, ezinbesteko jarduerari eusteko, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duen martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta helburua da herritarren mugikortasuna murriztea COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan.



TOLOSAKO
UDALA

SEIGARRENA.- Dekretu honetan araututako baimen ordaindu berreskuragarria ez zaie aplikatuko aldi baterako ezintasunagatiko bajaran dauden langileei ere edo legez aurreikusitako beste arrazoi batzuegatik kontratua etenda dutenei ere.

ZAZPIGARRENA.- 10/2020 Errege Lege Dekretuan araututako baimen ordaindu berreskuragarria ez zaie aplikatuko eraikinen mantentze eta segurtasunerako eta oinarrizko zerbitzu publikoak behar bezala emateko ezinbestekoak diren enpresetako langileei, zerbitzu horiek aurrez aurre ez ematea barne, hargatik eragotzi gabe Aparteko Neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurrienak, 34. artikuluan ezarritakoa.

ZORTZIGARRENA.- Indarrik gabe geratzen dira aurreko bi aste horietan lanera joatea gaitzen zuten ziurtagiriak, salbu eta aurrez aurre lanean jarraitu behar duten funtsezko zerbitzuei atxikitako enplegatu publikoen ziurtagiriak – Ebazpen honen bigarren puntua –. Joan-etorri bat justifikatzeko ziurtagiri hori behar ez bezala erabiltzen duen enplegatu publikoak dagokion erantzukizuna izango du, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Dokumentazioa biltzeko edo uzteko unean uneko asistentzietan dagokienez, behar diren ziurtagiriak emango dira langileak hala eskatuta

BEDERATZIGARRENA.- Alkatetza honek emandako ebazpenei beren horretan eutsiko zaie, erabaki hauek urratzen ez dituzten alderdi guztietan, bereziki, alarma-egoerak irauten duen bitartean langile publikoak prest egoteari (disponibilitateari) buruzkoetan.

HAMARGARRENA.- Ebazpen hauek jakinaraziko zaizkie Tolosako Udaleko langile guztiei, sailletako koordinatzaileei eta langileen ordezkariak.

Tolosa, 2020ko martxoaren 30ean.

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

2020ko apirilaren 4ko 2020/586 dekretua

ALKATEAREN DEKRETUA

2020/ 0586

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituenak, bere 21.1.m) artikuluan xedaturikoan oinarrituz,

IKUSIRIK

I.- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zela, Covid-19 gaitzak sortutako osasun krisia kudeatzeko.



TOLOSAKO
UDALA

Errege Dekretu hori martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren bidez aldatu zela.

Azken Dekretu honek argitzen duela ez zaizkiela aplikatuko zergen epeei 463/2020 Errege Dekretuaren 3. xedapen gehigarrian aipatzen diren terminoen etetea eta administrazio-epeen etetea.

Estatu mailan, Zergen arloan epeak eteteko erregulazioa martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 33. artikuluan jasota dagoela (COVID-19aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko ezohiko presako neurriei buruzko Errege Lege Dekretua).

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauan COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri batzuk onartu dituela.

Neurri horien xedea da COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru zerga sistemaren menpe dauden zergapekoei dagokienez.

II.- COVID-19ak sortutako aparteko egoerak zailtasunak ekarri diezaiekeela zergadunei, zerga arloko prozeduretan zerga obligazio eta izapide jakin batzuk betetzen. Egoera honetan, salbuespeneko zenbait neurri hartu behar dira zerga arloan epeak zabaltzeko, herritarrei, ahal den neurrian, egoerari aurre egiten laguntzeko.

III.- Zerga arloan, COVID-19aren krisiaren ondorioz eratorriko berezitasunak zerga araudiaren bitartez erregulatzen direla.

Era horretan, 1/2020 Foru Dekretu-Arauen 1. artikulua honela dio:

“Foru dekretu-arau honetan jasotako zerga neurrien xedea da COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru zerga sistemaren menpe dauden zergapekoei dagokienez”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, ohiko galderei erantzunak jasotzen dituen dokumentuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrian argitaratua, adierazi duela 1/2020 Foru Dekretu-Araua Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga arloan nahiz Gipuzkoako toki entitateen arloan aplikagarria dela. Eskumen hau ondorengo xedapenek inarritzen dute: 3/1979 Lege Organikoak, Euskadiko Autonomia Estatutuak onartzen duenak, bere 40. eta hurrengo artikuluetan euskal ogasunaren autonomia xedatzen duena; [27/1983 Legeak, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremani buruzkoak](#), eta 12/2002 Legeak, maiatzaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, Foru Erakundeen ahalmena onartzen dute dagokien lurralde historikoko zerga-araubidea arautzeko.

IV.- Tolosako Udalaren Zergak eta udal zuzenbide publikoaren sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorrak, 5. artikuluan, adierazten duela modu kolektiboan jakinarazten diren eta aldizkako mugaeguna duten udal zergak borondatez ordaintzeko epeak 1. eranskinean jasotzen direla.

Eranskin horretan adierazten da aparteko gorabeherarik izanez gero, alkateak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezakeela.

V.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateari dagokiola, besteak beste,



TOLOSAKO
UDALA

a) udal gobernua eta administrazioa zuzentzea

m) hondamendi edo ezbehar publiko edo arrisku larriren bat gertatuz gero, zuzenean eta bere erantzukizunpean beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, berehala horren berri Udalbatzari emanez.

Eskumen horien arabera, honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA. - 2020ko ekainaren 1era arte zabaltzea ondorengo epe hauek:

- 1- Likidazioen ondoriozko zerga-zorrak ordaintzeko epeak, borondatezko aldian.
- 2- Zerga-zorrak ordaintzeko epeak, exekuzio-aldia hasita eta premiamendu-probidentzia jakinarazita.
- 3- Errekerimenduei, enbargo eginbideei eta zerga arloan garrantzia duten informazio eskaerei erantzuteko epeak eta izapide hori edo entzunaldi izapidea irekitzeko egintzen aurrean alegazioak aurkezteko epea, betiere horiek guztiak ematen badira zergak aplikatzeko prozeduretan, zehapen prozeduretan, berrikuspen prozeduretan eta zerga araudian jasotako beste edozein prozeduratan.

Apartatu honetan jasotako epeen luzapena 2020ko martxoaren 14an bukatu ez diren nahiz ondoren hasi diren epeei dagokie.

Dena den, azken kasu horretan, epea araudi orokorrean kasu bakoitzerako jarritakoa izango da, araudi hori aplikatuz 2020ko ekainaren 1aren ondoren amaitzen den epea gertatzen denean.

BIGARRENA. - Atzeratzea onartuta dauden gerorapenen eta zatikapenen epemugei dagokien ordainketak, alarma egoera amaitu arte.

HIRUGARRENA. - 2020ko ekainaren 1era luzatzea zerga arloko egintzen aurka edo berraztertze errekurtsoen ebazpenen aurka errekurtsuak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzeko epea.

Epe luzapen hori aplikagarri izango da epe horiek 2020ko martxoaren 14an amaitu ez diren kasuetan eta epeak data horren ondoren hasten diren kasuetan.

Dena den, azken kasu horretan, epea araudi orokorrean egoera bakoitzerako jasota dagoena izango da, baldin eta araudi hori aplikatuz ateratzen den epea 2020ko ekainaren 1aren ondoren amaitzen bada.

LAUGARRENA. - Ordaintzeko borondatezko epeak aldatzea zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorraren egutegi fiskalean, ondorengo bi zerga horietan:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren borondatezko ordainketa epea: hasieran maiatzaren 15etik ekainaren 30a arte aurreikusitakoa aldatzea eta honela uztea: 2020ko abuztuaren 1etik irailaren 15a arte.



TOLOSAKO
UDALA

2. *Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren borondatezko ordainketa epea: hasieran martxoaren 1etik apirilaren 15a arte aurreikusitakoa luzatzea eta honela uztea: 2020ko martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartean.*

BOSGARRENA. - *Udal jabari publikoa okupatzeagatik ezarritako tasen inguruan:*

- *Azokak: 2. hiruhileko ordainagiriaren jaulkipena etetea, eta alarma-egoera amaitzean zenbatekoa birkalkulatzeko benetako okupazioaren arabera.*
- *Terrazak eta instalazio osagarriak bide publikoan: alarma egoerak establezimenduak ixtea eragin duela kontuan hartuta, hura amaitutakoan tarifak benetan okupatu ahal izan duten aldiarekiko proportzioan kalkulatu dira.*

SEIGARRENA. - *Zerbitzu publikoak emateagatik ezarritako tasen kasuan, aztertzea osasun alarmak zerbitzua ematean izan duen eragina, behar diren neurriak erabakitzeko.*

ZAZPIGARRENA. - *Neurri hauek, gaur egungo larrialdi egoeraren iraupenari buruz daukagun estimazioaren arabera hartzen dira. Horregatik, COVID-19 gaitzaren eraginez sortutako egoeraren bilakaeraren jarraipena egingo da, egoerak hala eskatzen badu, ezarritako neurriak aldatzeko.*

ZORTZIGARRENA. - *Erabakia jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaleko web orrian eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuz. Halaber, neurri hauei ahalik eta zabalpen handiena emango zaie.*

BEDERATZIGARRENA. - *Erabaki honen berri Udaltzari ematea egingo duen aurreneko bilkuran.*

Tolosan, 2020ko apirilaren 3an.

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, udalbatzak aho batez **berretsi ditu aipatutako dekretuak**

Besterik gabe, 14:35ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA